



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

### **EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA**

1. Klusterren antolakunde dinamizatzaileen programa .....	3
2. Hazitek 2021 programa .....	6
3. Elkartek 2021 programa .....	9
4. Emaitek Plus Programa 2021 .....	11
5. Azpitek 2021 programa .....	13
6. Bikaintek 2021 programa .....	15
7. Bilakatu Covid-19 Programa .....	17
8. Bateratu Covid-19 Programa.....	19
9. G4, G5 eta G6 sailkatutako Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak, erakunde pribatuentzat (Erein Pribatuak) .....	21
10. Euskal Autonomia Erkidegoko G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak (Erein Publikoak).....	23
11. Itsaspen laguntza-programa.....	25
12. 2015-2020 aldirako Euskadiko LGPren esparruan onartutako Leader eremuko landa-udalerriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzak .....	27
13. Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatuertarako laguntzak .....	29
14. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzak (Elkarteak Programa 2021) .....	31
15. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak .....	33
16. Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean .....	34
17. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak lekualdatzeko laguntzak.....	35
18. Azpisektoreetako minimis laguntza .....	36
19. Ekoizpen ekologikorako laguntzak .....	37
20. Animalien ongizaterako laguntzak.....	38
21. Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkarteentzako diru-laguntzak .....	39
22. Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa.....	41
23. Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa .....	44
24. Tokiko garapen parte-hartzailea.....	45
25. Itsasoratu Programa .....	47
26. Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka.....	48
27. EAEko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak 2021 .....	49
28. Gastrop 2021 - Lankidetzaren eta berrikuntzaren gastronomikorako programaren minimis laguntzak .....	51
29. EAEko elikaduraren eta zuraren kateko agenteen ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-departamentuak sortu eta garatzeko laguntzak 2021 .....	52



30. 2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru- araudia ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan aurreikusitako lankidetzarako laguntzak .....	54
31. 2021eko Bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak .....	56
32. Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzak 2021 .....	57
33. Ikertalent programa 2021 .....	59
34. Lehiatu Berria 2021 .....	61
35. Lehiatu Sustapena 2021 .....	63
36. Lehiatu Ardoa 2021 .....	64
37. MAE Sustapena 2021/2022 - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzak .....	65
38. MAE Inbertsioa 2021 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak .....	66
39. ARDOINB 2021 - Mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzak, minimis laguntzen araubidea baliatuta .....	67
40. Fruta-eta barazki-ekoizleen erakundeei laguntzak 2021 .....	68
41. 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan barne jasota dauden nekazarien eta baso-ekoizleen elkarreentzako laguntzak 2021 .....	69
42. BASQUEWINE 2021 .....	70
43. Ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, artisau-garagardoaren eta ontziraturako uraren sektoreetarako 2021erako aparteko laguntzak.....	71
44. EAEko abeltzaintzako ustategietarako aldi baterako laguntzak 2021eko ekitaldirako .....	73
45. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak .....	74
46. Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko programa .....	76
47. Eskolako Agenda 2030 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen deialdia egiten baita 2021-2022eko ikasturterako .....	79
48. Natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten elkarte, erakunde pribatu, boluntariora-erakunde eta fundazioentzako dirulaguntzak.....	81
49. Laguntzak garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Toki Erakunde Publikoentzat .....	83
50. 2021. Dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei, ingurumen-boluntariora- proiektuak gara ditzaten .....	87
51. Euskadin ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen Agindua .....	89



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Klusterren antolakunde dinamizatzailen programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deitzen eta arautzen baitira, 2021eko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzailentzako babes-laguntzak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua: 2021eko uztailaren 28ko Agindua (EHAA, 163. zk., 2021-08-17koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104462e.pdf>

2022ko otsailaren 8ko Ebazpena (EHAA, 33. zk., 2022/02/15)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200766e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan jasotako laguntzak itzuli ezingo diren dirulaguntzak dira eta honako laguntza-muga hauek dituzte:

- a) Nazioartekotze-prozesurako laguntza-zerbitzuak eta jarduketak: onartutako gastuen % 40, gehienez. BasqueTrade & Investment agentziarekin elkarlanean egindako proiektuak eta jarduketak izanez gero, laguntzaren gehieneko intentsitatea onartutako gastuen % 50era arte handituko da.
- b) Enpresek proiektuetan parte hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzuak (nazioartekotzean salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- c) Zaintza-, informazio-, benchmarking- eta estrategia-zerbitzuak: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- d) Hedapen-zerbitzuak, jardunaldiak, topaketak eta ekitaldiak (nazioartekoak salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- e) Foroak dinamizatzea, jarduketa-ildoak eta lankidetzak-proiektuak zehazteko: onartutako gastuen % 50, gehienez.
- f) Erronka partekatuko proiektu-taldeak dinamizatzea (aurrez garatu da, DIN1ean): onartutako gastuen % 50, gehienez.
- g) Elkarteko talde teknikoaren gaitasunak garatzea: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- h) Klusterraren sustapena eta garapena, bazkideak erakartzea, komunikazioa (webguneak, buletinak eta abar): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- i) COVID-19tik eratorritako jarduketak. Ekintza pilotuak: onartutako gastuen % 50, gehienez.

Kanpoko gastuek honako laguntza-muga hauek dituzte:



- a) Zuzeneko merkataritza-misioak: 2. eranskinaren arabera helmugako herrialderako ezarritako bidaia-poltsen zenbatekoaren % 50 gehienez ere.
- b) Alderantzizko merkataritza-misioak: misioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez ere. Misioko kideen bidaiak, egonaldiak eta mantenuak eragindako gastuetarako, laguntzaren gehieneko muga pertsona bakoitzeko honako hau da: jatorrizko herrialdeari buruzko bidaia-poltsaren zenbatekoa, 2. eranskinaren arabera.
- c) Atzerriko azokak: 2. eranskinaren arabera helmugako herrialderako ezarritako bidaia-poltsen zenbatekoaren eta standak eta dekorazioak eragindako gastuen % 50 gehienez ere.
- d) Nazioarteko sustapen- eta hedapen-elementuak: proiektu bakoitzaren % 50 gehienez ere.
- e) Klusterrarekin komunikazio-jarduerak (webguneak, buletinak eta abar), sustapena eta bazkideak erakartzea: beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez ere, 6.000,00 euroko mugarekin urteko eskabide bakoitzeko.
- f) Jardunaldiak, mintegiak eta ekitaldiak: beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez, urteko eskaera bakoitzeko 8.000,00 euroko mugarekin.

Laguntza-zerbitzuei eta nazioartekotze-jarduketari dagozkien kanpoko gastuen kasuan –a), b), c) eta d) apartatuetan deskribatzen dira–, 50.000,00 euroko dirulaguntza emango da gehienez ere, banaka egingo diren azoka, misio edo jarduketa bakoitzerako, eta 180.000,00 euro urteko eskabidean aurkeztutako jarduketa guztietarako.

Onuradun bakoitzak 450.000,00 euroko laguntza jaso ahal izango du gehienez.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

	Estrategia	Berrikuntza	Nazioartekotzea	Teknologia	Guztira
Diru-laguntza	1.161.701	633.571	547.838	706.074	3.049.184

Programaren aurrekontu-zuzkidura ez da nahikoa KEBen behar guztiak betetzeko; hala ere, oso egokia da eta KEBek garatu beharreko jarduerari laguntzeko tresna handi gisa jarduten du.

#### ERABILGARRITASUNA ETA GIZARTE-ERAGINA

Programa honek euskal enpresen lehiakortasunean eragiten du, lankidetzaren, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen bidez.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erreferentziako kluster-eremuen kopurua	16	16
Erakunde dinamizatzailer aktiboen kopurua	25	25
Elkartutako enpresen (ETEak) kopurua	1.915 (1.430)	1.917 (1.631)
Nazioartekotzeko lankidetzeta-jardueren kopurua	180	121
Berrikuntzarako eta teknologiarako lankidetzeta-taldeen eta jarduketan kopurua	230	238
KEBetako barne-taldeen dedikazioa (orduak)	135.000	140.331
Jarduketan finantzaketa pribatuaren balioa (KEBetako kideak) (euroak)	5.500.000	5.687.036



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hazitek 2021 programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 31koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Hazitek. Enpresa I+G Bultzatzeko Programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 31koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Hazitek Enpresa I+G Bultzatzeko Programa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/03/1701116e.pdf>

AGINDUA, 2018ko abenduaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Hazitek Programa arautzen duen agindua aldatzeko dena

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806352e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2021eko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren I. fasearen deialdia.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/12/2005566e.pdf>

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 31koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2021eko ekitaldirako, Enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren II. faserako deialdi

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104688e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Aginduan (Agindu hori 2018ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez aldatu zen) aurreikusitako laguntzen 2020ko ekitaldikoko erakunde adjudikaziodunen zerrenda. Agindu horren bidez, enpresen I+G jarduerari laguntzeko Hazitek programa arautzen da

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200711e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak burutzen laguntzeko laguntza-programak ematea da. Proiektu horiek izaera lehiakorra nahiz estrategikoa izan dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.



- Lehiakortasun-proiektuak: Izaera lehiakorreko I+G proiektutzat joko dira ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektu-tipologia hauek:
  - 1) Produktu berriak garatzeko proiektuak.
  - 2) Zientzian eta teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko proiektuak.
- Proiektu estrategikoak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planeko espezializazio-esparruetan jasotako izaera estrategikoko ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektuak lagunduko dira diruz. Proiektu horiek, teknologia- eta berrikuntza-esparruetako ikerkuntza eta garapenean, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatu beharko dute.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

<u>Babestutako proiektuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>		<u>Diru-laguntza</u>
Estrategikoak	43	161,5	52,6 Mill. €
Lehiakorrak	825	198,4	43,2 Mill. €
<b>Guztira</b>	<b>868</b>	<b>359,9</b>	<b>95,8 Mill. €</b>

Kontuan izanik 2021ko deialdiak 96,3 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %99,5koa izan da.

Lehiakortasunerako Hazitek programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko; halaber, egokia da egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Hazitek programaren ildo estrategikoa baliagarria da lankidetzaren publiko-pribatua garatzeko eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, baldin eta ikerketa jarduketaren estrategikoko esparruetan egiten badute, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaren-kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-inpaktua: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektu berezien kopurua	5	2
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua	35	43
Lagundutako enpresen kopurua	185	235
Lagundutako lankidetzaz lehiakortasun-proiektuen kopurua	610	629
Enpresen I+Gko unitateekin edo sareko beste agente batzuekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua	580	604
Produktuen garapenerako proiektu diruz lagunduen kopurua	795	814
Produktuen garapenerako proiektuetan diruz lagundutako enpresen kopurua	720	849
Oinarri teknologikodun enpresa berriak ateratzeko proiektu berri diruz lagunduen kopurua	25	14
OTEBetarako I+Gan lagundutako agenteen kopurua	9	4
OTEBak ateratzeko I+G proiektuetarako lagundutako enpresen kopurua	38	23





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Elkartek 2021 programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen duena (Elkartek Programa)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2016ko abenduaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen duena (Elkartek Programa)  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/12/1605580e.pdf>

AGINDUA, 2018ko abenduaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Elkartek Programa arautzen duen agindua aldatzeko dena.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806351e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen (Elkartek Programa) 2021eko ekitaldirako I. faserako deialdia.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/12/2005567e.pdf>

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 27koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen II. faserako deialdia (Elkartek programa), 2021eko ekitaldirako  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104464e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduan (Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko abenduaren 17ko Aginduen bidez aldatua) aurreikusitako laguntzen 2021eko deialdiko erakunde onuradunen zerrenda. Lankidetzako ikerketa arlo estrategikoetan, Elkartek Programa.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200712e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honek ikerketa-proiektu kolaboratiboak babesten ditu, dela oinarritzakoak, dela industrialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko (Elkartek programa).



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

<u>Babestutako proiektuak</u>	<u>Zk.</u>	<u>Aurrekontu onartua</u>	<u>Emandako dirulaguntza</u>
Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak	40	36,3 Mill. €	36,2 Mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	15	670 Mill. €	3,3 Mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	10	0,8 Mill. €	0,4 Mill. €
GUZTIRA	65	43,8 Mill. €	39,9 Mill. €

Kontuan izanik 2021ko deialdiak 40 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %99,9koa izan da.

Proiektuak bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planaren espezializazio-esparruekin.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planean jasotakoetan, alegia.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Arlo estrategikoetan, lankidetzan garatutako oinarrizko ikerketa proiektuen kopurua	40	40
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuen kopurua	20	15
Interes bereziko ekintza osagarrien kopurua	8	10
Lagundutako eragileen kopurua	75	69



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Emaitek Plus Programa 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704120e.pdf>

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903681e.pdf>

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Emaitek Plus laguntza-programarako 2021eko ekitaldiko deialdia.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Emaitek Plus laguntza-programa arautzen duen 2015eko irailaren 16ko Aginduan araututako laguntzen 2021eko deialdiko onuradunen zerrenda. Agindu hori, lehenengo, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduak aldatu zuen, eta gero, 2019ko uztailaren 18ko Aginduak.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200709e.pdf>



#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroyen eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyen jarduera ez-ekonomikoari laguntzera bideratutako laguntza publikoak. Hala, finantzaketa esleituko die, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, Emaitek Plus programaren bidez.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontua, guztira: 71 milioi euro. Kontuan izanik 2021eko deialdiak 71 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100ekoa izan da.

Hamaika teknologia-zentroyen eta lau CIC ikerketa-zentro kooperatiboren jarduera ez-ekonomikoa babestu da; era berean, 22 hobekuntza-ekintza lagundu dira teknologia-zentroyen aginte-koadroa betetzeko, eta 15 hobekuntza-ekintza egin dira CICetako aginte-koadroyen betetzea hobetzeko.

Teknologia zentroyetan, egikaritze mailaren batz-bestekoa %94,02tik (2020an), %91,66ra igo da 2021ean; eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyetan, %85,39etik (2020an), %85,99ra (2021ean).

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, adierazledun aginte-koadroy baten bidez, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburu batzuekin.

Gizartean izango duen inpaktua: Agenteen ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak enpresa alorrera transferitzea; haiek laguntzen baitute enpresen lehiakortasunaren sustapenean eta, baita, beraien garapen ekonomikoan, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Lagundutako Zentroyen kopurua	15	15
Argitalpen zientifikoaren kopurua	1.200	1.320
Eskatu diren patenteen kopurua	110	116
Azken 5 urteotan NEBTSen fakturazioa	15.000 milaka. euro	16.307 milaka euro



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Azpitek 2021 programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2021 programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2021 programa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102922e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko maiatzaren 5eko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2021eko ekitaldiko erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, arautzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen oinarri arautzaileak Azpitek 2021 programa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200710e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da diruz laguntzea Foku Anitzeko Zentro Teknologikoen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBS) Ikerketa Kooperatiboko Zentroek (IKZ) egindako azpiegitura zientifiko-teknologikoen (A Z-T) eta ekipamendu zientifiko-teknikoen eskuratzeko, horien instalakuntza eta eguneratzea I+G+B garatzeko eta emaitzak baliozkoak eta frogatzeko. Hori guztia emaitzen kalitatea eta emaitzen eragin zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratuta dago.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako diru-laguntza
Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko edota eguneratzeko proiektuak	24	13,5 Mill. €	12,18 Mill. €

Aintzat hartuta 2021eko deialdiko aurrekontua 12,18 M eurokoa zela, aurrekontua %100ean bete da.



Euskadik dituen erronkei zientziatik eta teknologiatik erantzuten jarraitzeko, beharrezkoa da azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak izatea, Euskadin eragina duten 3 trantsizioei heltzeko: trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio soziala eta sanitarioa.

A Z-Tk dira I+G+Bko ekosistemen eta berrikuntzan oinarritzen diren balio-kateen bizkarrezurra. Hala, A Z-Tek teknologiaren garapen eta sorkuntza bateratua babesten dute, eta ziurtatzen dute teknologia hartzen dela kontzeptuaren probatik eta laborategietako baliozkotzetik hasita eta industria-inguruneko prototipoen erakusketara, dagokion inpaktu sozioekonomikoarekin Euskadin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	30	24



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bikaintek 2021 programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak – Bikaintek programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak – Bikaintek programa.

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 16koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan doktoregoak kontratatuz eta doktorego industrialak eginez I+G proiektuak garatzeko laguntzen 2021eko deialdia. Bikaintek programa.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 1ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen 2021eko martxoaren 16ko Ebazpenak iragarritako laguntzen onuradunen zerrenda (Bikaintek 2021 programa).

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da enpresetan eta ZTBESko eragile jakinetan (ikerkuntza kooperatiboko zentroak, teknologia-zentroak eta enpresatako I+G unitateak) ikerkuntza eta garapena diruz laguntzea. Horrela, ikerlariak kontratatuta, goi-maila teknologikoko taldeak eratuz, beraien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko. Doktore-titulua duten pertsonen kontratazioa, I+G proiektuetan lan egiteko, edota industria-ikerketako proiektu bat egingo duten pertsonen Kontratazioa.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren aurrekontu osoa 5.670.000 eurokoa da: 1.402.500 € ordainketa-kreditua 2021eko ekitaldirako, 2.085.000 € 2022ko ekitaldirako, 1.432.500 € 2023ko ekitaldirako eta 750.000 € 2024ko ekitaldirako.

Aurkeztu ziren eskaerak 60 izan ziren: 37 doktoreak kontratatzeko lerroan eta 23 doktore-tesi industrialen lerrora. Guztira, 46 ikerlari kontratatu ziren, zeinetatik 29 emakumezkoak izan ziren (%63), eta 17 gizonezkoak (%37).



Aurrekontuaren egikaritzea %49,87koa izan da.

Eragina gizartean: doktoreak kontratatzeke lerroarekin, talentua eta lehiakortasuna igotzen dira enpresetan, industria-ehunean beraien hezkuntzan gaitasun bereziak garatu dituzten pertsonak laneratzen. Bestalde, doktorego-ikasketak enpresetan edo ZTBESko eragile jakinetan egingo dituzten pertsonak kontratatzeke lerroan, talentua atxikitzea eta doktoregoko ikasleak EAEko I+Dko proiektuak enpresa-ingurumenetan garatzeko baldintzetan jartzea du helburu. Aldi berean, EAEko industria-ehunaren lehiakortasuna eta nazioartekotze-gaitasuna gehitzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Lagundutako doktorego-tesi kopurua	30	16
Kontratatu den doktore kopurua	45	30





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bilakatu Covid-19 Programa**

## 2.- Araua

2021eko ekainaren 2ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Bilakatu COVID 19 programa arautzen baita, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio, produktu, zerbitzu eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2021eko ekainaren 2koa (2021eko ekainaren 11ko EHAA, 114. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103354e.pdf>

2022ko urtarrilaren 21eko Ebazpena (2022/02/09ko EHAA, 28. zk.) – 2021eko onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200659e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honek abian jartzen duen laguntza-erregimena bat dator eta errespetatzen du Covid-19aren krisiaren aurrean Ekonomia babesteko Laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ondorioz, Covid-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko enpresei eta autonomoei laguntzeko neurriei buruzko aldi baterako Esparru Nazionala, Europar Batasunak ezarritako laguntzen tipologiara eta horiek baimentzeko oinarritzko baldintzetara egokituz.

Beharrezkoa da Covid-19ak eragindako enpresentzako laguntza-programa baten deialdiaren baldintzak garatzea, dibertsifikazio- eta/edo birlokalizazio-jarduerak egiten badituzte eta gaitasun berriak garatzen badituzte negozio-lerroetan, produktuetan, zerbitzuetan eta merkatuetan, inbertsioen gauzatze dinamikoa errazteko eta, inbertsioak amaitu ondoren, onuradunek laguntzak emateko kontuan hartutako baldintzak gutxienezko denbora-tarte batez mantentzen dituztela bermatzeko.

Laguntzaren modalitatea izango da laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10eko (enpresa handia) edo % 15eko (ETEak) diru-laguntza ematea, itzuli beharrik gabe.

Jarduerak ezingo dira 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen hasi, eta egun horretatik aurrera egin beharko dira, gehienez ere, hurrengo bi urte naturaletan, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera.

Diru-laguntzek gehienez ere 1.000.000,00 euroko zenbatekoa izango dute enpresa edo enpresa-talde bakoitzeko.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

## 2021EKO DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 124

Eragindako/onartutako inbertsioa: 420.802.639,49 EURO.

Mantendutako enplegua: 14.353 Onartutako enplegua: 1.241

Emandako diru-laguntza ez itzulgarria: 43.326.609,07 EURO.

## ERABILGARRITASUNA ETA ERAGIN SOZIALA:

Programa honek eragin positiboa izan du COVID – 19 egoeratik sortutako beharrianetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako enpresen kopurua	10	124
Enpleguak	200	1.241



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bateratu Covid-19 Programa**

## 2.- Araua

2021eko ekainaren 2ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez BATERATU COVID 19 programa arautzen baita, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio, produktu, zerbitzu eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2021eko ekainaren 2koa (2021eko ekainaren 11ko EHAA, 114. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103355e.pdf>

2022ko urtarrilaren 21eko Ebazpena (2022/02/10eko EHAA, 29. zk.) – 2021eko onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200691e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19ak eragindako enpresentzako edo enpresa-taldeentzako laguntza-programa da, baldin eta bateratze eta/edo xurgatze-planak abian jarri ondoren kontsolidazio-jarduerak egiten badituzte, hazkundera bizkortzeko eta ondoriozko enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko.

Laguntzak itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez egituratzen dira, eta diruz lagundu ahal izango dira kontsolidazio-, bategite- eta/edo xurgatze-plana egiteko aholkularitza-gastuak eta kontsolidazio-eragiketa formalizatzeko notariotza-gastuak, bai eta eragiketa horrek dakartzan inbertsioak ere; honako hauek ezarriko dira:

- Enpresa handientzat eta enpresa txiki eta ertainentzat justifikatutako aholkularitza eta/edo notariotza-gastuei dagokienez, gastuen % 25. Gastu horiei dagokienez, gastu hautagarritzat hartu beharreko gehieneko kostua 300.000,00 eurokoa da.
- Laguntza jaso dezaketen inbertsioetarako, % 10 enpresa handientzat eta % 15 enpresa txiki eta ertainentzat. Enpresaren berezko baliabideak, diru-laguntzak alde batera utzita, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25era iristea, gutxienez.

Kontuan hartu beharreko inbertsioak eta enplegu-sorrera erakunde juridiko bakar batek egin beharko ditu, eta enpresa-taldeek kasuan, % 100eko akzio partaidetzarekin, baldin eta produkzio-zentro bat baino gehiago badituzte, soilik arau honetako irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroan edo produkzio-zentroetan.

Enpresa onuradunek bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa erakutsi beharko dute.

Diru-laguntzek gehienez ere 500.000,00 euroko zenbatekoa izango dute enpresa edo enpresa-talde bakoitzeko.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 12

Eragindako/onartutako inbertsioa: 12.806.205,51 EURO.

Mantendutako enplegua: 1.378 Onartutako enplegua: 191

Emandako diru-laguntza ez itzulgarria: 1.757.972,84 EURO.

ERABILGARRITASUNA ETA ERAGIN SOZIALA:

Programa honek eragin positiboa izan du COVID – 19 egoeratik sortutako beharrianetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako enpresen kopurua	5	12
Enpleguak	100	191



## 1. Dirulaguntza-programaren izenburua

**G4, G5 eta G6 sailkatutako Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak, erakunde pribatuentzat (Erein Pribatuak)**

## 2.- Araua

Agindua, 2020ko abenduaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperresteka)

Araua eta deialdia: EHAA, 259. zk., 2020ko abenduaren 28koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/12/2005553a.pdf>

Onuradunak argitaratzeko ebazpena: 2021eko abenduaren 2ko EHAA, 240. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106080a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horrek honako laguntza-mota hauek arautu ditu:

- Nekazaritza-sektorearekin zerikusirik ez duten baina sektorea dibertsifikatzera bideratuta dauden jarduerak
- Mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak eta autonomo gisa alta emandako pertsona fisikoek garatutako proiektuak eratzea eta garatzea.
- Enpleguaren sorrera garbia.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako 81 eskaeretatik 43 proiektuk aldeko ebazpena jaso dute (54 ebaluatu dira 27 atzera egite kontabilizatu ondoren).

Deialdiaren babesean, 3.560.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, honako funts hauek konprometitu ziren laguntza motaren arabera:

Diru-laguntzaren mota	Aurreikusiak/deituak			Konprometituak		
	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA
Dibertsifikazio ekonomikoa, enpresen sorrera eta garapena	1.760.000	1.740.000	3.500.000	1.759.596	527.174	2.286.769
Enpleguaren sorrera garbia	30.000	30.000	60.000	25.743	25.743	51.486
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.790.000</b>	<b>1.770.000</b>	<b>3.560.000</b>	<b>1.785.339</b>	<b>552.917</b>	<b>2.338.255</b>



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusitakoa</u>	<u>Eginda</u>
Nekazaritzakoak eta arrantzakoak ez diren jardueretarantz dibertsifikatzeko proiektuak:		
Aurkeztutako eskaeren kopurua	5	7
Emakumeek aurkeztutako eskaeren kopurua	2	2
Lagundutako proiektuen kopurua	5	0
Emakumeek aurkeztutako eta onartutako proiektuen kopurua	2	0
Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta/edo garatzeko proiektuak:		
Aurkeztutako eskaeren kopurua	50	62
Lagundutako proiektuen kopurua	35	35
Enplegu-sorrera garbiko proiektuak		
Aurkeztutako eskaeren kopurua	10	12
Konprometitutako enpleguen kopurua	10	11
Emakumeen enplegu kopurua	4	4
Gazteen enplegu kopurua	5	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak (Erein Publikoak)**

## 2.- Araua

Agindua, 2020ko abenduaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: EHAA, 256. zk., 2020ko abenduaren 23koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/12/2005507a.pdf>

Onuradunak argitaratzeko ebazpena: 2021eko abenduaren 2ko EHAA, 240. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106081a.pdf>

## 4.- L Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xede diren landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen, enplegua sortzen edo turismoa bultzatzen lagunduko duten azpiegiturak eta ekipamenduak hornitzen laguntzeko dira laguntza hauek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako 87 eskaeretatik 42ri aldeko ebazpena eman zaie (72 ebaluatu dira 15 atzera egite kontabilizatu ondoren).

Deialdi horren babesean, 4.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, honako funts hauek konprometitu dira, laguntza-motaren arabera:

Diru-laguntzaren mota	Aurreikusiak/deituak			Konprometituak		
	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA
Turismoari lotutako bizi-kalitatea eta kultura- eta natura-ondarea hobetzea	2.800.000	1.200.000	4.000.000	1.721.091	430.273	2.151.363



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusitakoa</u>	<u>Eginda</u>
Aurkeztutako eskaeren kopurua	80	87
Lagundutako proiektuen kopurua	50	42





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itsaspen laguntza-programa**

## 2.- Araua

22/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Arau erregulatzaila: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/03/1201055a.pdf>

Deialdia: 2021eko otsailaren 10eko Agindua, 2021eko otsailaren 22ko EHAAn argitaratua (38. zk.)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/02/2100993a.pdf>

Diru-laguntza emateko ebazpena: 2021eko azaroaren 25eko EHAA, 245. zk., 2021eko abenduaren 9koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106145a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzetan sustapen- eta garapen-jarduerak eta -inbertsioak finantzatzera bideratutako laguntza ekonomikoak ematea, herritarren oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetuz eta kostaldeko herriak biziberritzen eta berritzen eta horiek garatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen lagunduz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko otsailaren 10eko Aginduaren babesean, aurkeztutako 20 eskaeretatik 13 proiektu onartu dira.

500.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, laguntza-motaren arabera, honako funts hauek hitzeman ziren:

Diru-laguntzaren mota	Aurreikusiak/deituak			Konprometituak		
	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA	Funtsak 2021	Funtsak 2022	GUZTIRA
Itsasertzeko ekonomiarako eta biztanleentzako oinarrizko zerbitzuak	153.000	229.500	382.500	151.948	156.950	308.898
Itsasertzeko ondarea zaintzea eta hobetzea	47.000	70.500	117.500	40.663	23.205	63.868
<b>GUZTIRA</b>	<b>200.000</b>	<b>300.000</b>	<b>500.000</b>	<b>192.611</b>	<b>180.155</b>	<b>372.766</b>



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusitakoa</u>	<u>Eginda</u>
Aurkeztutako eskaeren kopurua	20	20
Lagundutako proiektuen kopurua	12	13



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2015-2020 aldirako Euskadiko LGPren esparruan onartutako Leader eremuko landa-udalerrriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Agindua, 2020ko abenduaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia: EHAA, 261. zk., 2020ko abenduaren 30ekoa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/12/2005586a.pdf>

Diru-laguntza emateko ebazpena: 2022ko urtarrilaren 24ko EHAA, 15. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/01/2200371a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak honako laguntza-mota hauen emakida arautu du:

- Ekintzaitzari laguntzea
- Enpresak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko inbertsioak
- Besteren konturako kontratazioa
- Azpiegiturak, oinarrizko zerbitzuak eta udalerrien berrikuntza
- Etxebizitza

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiak ebatzi du guztira 206 proiektu onartzea, aurkeztutako 314 eskaeretatik.

Aipatutako deialdiaren babesean, 9.310.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin (1.460.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, zeina Feaderrak kofinantzatuko baitu, 3.750.000 euro gehi 4.100.000 euro estatuko finantzaketa osagarriaren kontura), honako zenbateko hauek hitzeman dira, laguntza-motaren arabera:

Diru-laguntzaren mota	Aurreikusia/ deitua	Konprometitua
Ekintzaitzarako laguntza	155.000	183.624
Enpresak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko inbertsioak	2.387.500	1.979.413
Besteren konturako kontratazioa	45.000	55.750
Azpiegiturak, oinarrizko zerbitzuak eta udalerrien berrikuntza	6.500.000	6.832.333
Etxebizitza	222.500	201.304



<b>GUZTIRA</b>	<b>9.310.000</b>	<b>9.252.424</b>
----------------	------------------	------------------

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Proiektatua</u>
Leader herrietako azpiegituren, oinarrizko zerbitzuen eta berrikuntzaren lerrora aurkeztutako eskaeren kopurua.	180	195
Etxebizitzari laguntzeko lerrora aurkeztutako eskaeren kopurua.	20	17
Leader herrien azpiegituren, oinarrizko zerbitzuen eta berrikuntzaren lerroaren babesean lagundutako proiektuen kopurua.	80	128
Etxebizitzari laguntzeko lerroaren babesean lagundutako proiektuen kopurua.	10	11
Ekintzailtzari laguntzeko proiektuak.		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	30	23
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeek aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	20	13
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagundutako proiektuen kopurua.</li> </ul>	20	20
Nekazaritzakoak ez diren jardueretarantz dibertsifikatzeko proiektuak.		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	5	1
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeek aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	1	1
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagundutako proiektuen kopurua.</li> </ul>	4	1
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagundutako emakumeen proiektuen kopurua.</li> </ul>	1	1
Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta/edo garatzeko proiektuak.		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	80	71
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagundutako proiektuen kopurua.</li> </ul>	40	39
Enplegua sortzeko proiektu garbiak.		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkeztutako eskaeren kopurua.</li> </ul>	10	8
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzartutako lanpostuen kopurua</li> </ul>	12	10
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen enplegu kopurua</li> </ul>	4	5
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen enplegu kopurua.</li> </ul>	4	0



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatueterako laguntzak**

#### 2.- Araua

45/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko laguntzei buruzkoa.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAn Hiperesteka)

Deialdia: 2021eko martxoaren 24ko Agindua, 2021eko apirilaren 9ko 69. zenbakiko EHAAn argitaratua.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/04/2102052a.pdf>

Emateko ebazpena: 2022ko otsailaren 9ko Ebazpena, 2022ko otsailaren 17ko EHAAn argitaratua (35. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/02/2200826a.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da nekazaritza-ustategietan sasoiko zerbitzuak ematen dituzten pertsonentzako ostatueterako laguntzen araubidea arautzea. Sasoikako langileentzako bizitoki-sarea handitzeko eta hobetzeko proiektuak edo jarduerak diruz lagunduko dira, bai eta sasoikako langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bitartean integratzeko ostatu-baldintza duinak bermatzekoak ere. Horren barruan egon daiteke bizitoki horiek eraikitzea edo, hala badagokio, erostea, eta gaitzea, eraberritzea, handitzea, egokitzea, hobetzea eta ekipatzea, erregistratutako bizitokia izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hiru proiektu onartu dira, eta 27.807,62 euroko konpromisoa hartu da, aurrekontuan jasotako 70.000,00 eurotik.

Laguntza horien aurrekontu-betearazpenaren ehunekoa ez da handia; hala ere, ukaezina da dauden bizitokiak hobetzen jarraitu behar dela eta, batez ere, plaza berriak sortzea sustatu behar dela, euskal nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak eskatzen dituen sasoiko langileen beharrak duintasunez bete nahi badira. Lortu nahi den helburua sasoiko nekazaritza-lanak egiten dituzten eta ostatua behar duten pertsona guztiei ostatu emateko adina plaza egotea da, eta plaza horiek guztiak erregistratuta egotea.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusitakoa</u>	<u>Eginda</u>
Aurkeztutako eskaeren kopurua.	5	5
Emakumeek egindako eskaeren kopurua.	2	2
Lagundutako bizitokien kopurua.	5	3
Titularra emakumea duten bizitoki lagunduen kopurua.	2	2
Plaza-kopurua.	40	81



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzak (Elkarteak Programa 2021)**

#### 2.- Araua

233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialei zuzendutako laguntzei buruzkoa.

AGINDUA, 2021eko martxoaren 31koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2021eko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia (Elkarteak Programa).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105926a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2102199e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialei diru-laguntzak ematea, beren interesak ordezkatu eta defendatzeko eta sektore bakoitzaren jardueraren baldintzak hobetzeko.

2021ean 419.391,00 euro erabiliko dira, honela banatuta:

- Elikagaien sektorerako: 100.000,00 euro.
- Nekazaritza-sektorerako: 130.000,00 euro.
- Arrantza-sektorerako: 189.391,00 euro.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Nekazaritza-sektorea: 13 espediente izapidetu dira, eta 186.704,35 € bideratu dira.
- Arrantza-sektorea: 3 espediente izapidetu dira, eta 189.185,33 € bideratu dira.
- Elikagaien sektorea: guztira 99.995,14 €-ko 6 proiektu lagundu dira eta proiektu bat ukatu da.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz-lagundutako elkarteak - Nekazaritza-sektorea	13	13
Diruz-lagundutako elkarteak - Arrantza -sektorea	8	6
Onartutako proiektuen kopurua - Elikagaien sektorea	20	6





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak**

## 2.- Araua

Agindua, 2021eko uztailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2021eko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104557e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/08/2104557a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin egiten duten elkarrizketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarrizketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Euskal Landa Ingurunea Garatzeko 1997-2000 Euskal Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarrizketan aritzeko foro batzuk sortu dira. Foro horiek sortzeko baldintza izan da izaera sindikala duten nekazaritza-elkarte profesionalak laguntzak emateko irizpideak berritzea. Hori horrela, administrazioarekin egiten dituzten elkarrizketa-jarduerak osatzen dute, elkarte horiei laguntza emateko aintzat hartu behar den irizpideetako bat, haien bertaratzea eta partaidetza bultzatzeko. 2020ko ekitaldian, dauden 5 erakunde profesionalak buruzko espedienteak izapidetu dira eta eskaera aurkeztu dute. Laguntzen zenbatekoa, guztira, 241.000,00 eurokoa izan da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erakundeak	5	5



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 31koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena. Haren bitartez, nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboaren dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumeneko diru-laguntzaren 2021 deialdia egiten da. Teknika horiek EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusita daude.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2102181e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/04/2102181a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hori baliatuz, eta neurri honen bitartez, laborantza estentsiboen dibertsifikazioa sustatu nahi da, nekazaritza-produkzio jasangarriko teknikak erabilia, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan onartutakoaren eta jasotakoaren arabera. Neurri honen helburuak dira, batetik, baliabide naturalen jasangarritasuna eta arazoizko aprobetxamendua sustatzea eta, bestetik, ingurua babestea. Horretarako, ustiapenen titularren errentak mantendu edo hobetuko dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Agindu horren bidez, laborantza estentsiboaren dibertsifikazioari laguntzeko 2021erako laguntza-lerro honen bosgarren ekitaldirako deialdia egin zen, eta ekitaldi horretan 130 ustiatagiri buruzko espedienteak izapidetu ziren. Laguntzen zenbatekoa, guztira, 1.086.678,68 €-koa izan zen (40 sozietate, 81 gizon eta 9 emakume).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	135	130



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak lekualdatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak lekuz aldatzeko laguntzak arautzen dituen eta 2021erako deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104711e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/09/2104711a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren bidez, agintari judzialen ebazpenez jarduera utzi behar duten ustiategiak birkokatzeko aukera eman nahi da, eta ustiategia indarrean dagoen araudia betetzen duen leku batera eraman.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza-lerro hori ekitaldi bakar batean aplikatu ondoren, ustiategi bati arretea emateko helburuak bete direla ikusi da, eta 100.000,00 €bideratu dira horretarako.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	2	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

<b>Azpisektoreetako minimis laguntza</b>
--

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2021erako nekazaritzaren azpisektorea dibertsifikatzeko laguntzetarako deialdia egiten duena, ekoizpenaren kalitateari edo eraldaketari lotutako berrikuntzaren eremuan, minimis laguntzen erregimenaren pean.
--

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<a href="https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105747e.shtml">https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105747e.shtml</a>
---

<a href="https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/2105747a.shtml">https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/2105747a.shtml</a>
---

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Berrikuntzarekin eta kalitatearekin lotutako nekazaritza-nitxo berriak abian jar daitezzen sustatzea, aldi berean euskal nekazaritza-sektorea eraldatzeko eta gartzetako prozesuak bultzatzeko, lupuluaren, zereal okaztagarrien, ahuntz-esnearen eta fruitu lehorren (intxaurrea eta hurritza) ekoizpen-azpisektoreetako ustiatzei lagunduz.
---

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza-ildo hori lehen ekitaldian aplikatu ondoren, neurri horrekin jarraitu nahi da etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietan, sektorean sortu den interesa dela eta. 2021eko ekitaldian 20 espediente izapidetu dira Nekazaritza eta Abeltzaintza arloan, eta 124.000,00 €bideratu dira.
---

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak		30	20



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ekoizpen ekologikorako laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko azaroaren 24koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2021erako ekoizpen ekologiko ziurtaturako trantsiziorako laguntzen deialdiaren oinarriak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106079e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106079a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lehenengo ekitaldi honetako deialdiaren bidez, gure ekoizpen konbentzionalaren zati bat ekoizpen ekologikorako trantsizioan lagunduko duten jarduerak garatzen lagundu nahi izan da, ekoizpen-ereduei aurre egin gabe, bateragarri egin baizik.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Agindu horren bidez, lehen aldiz deitu da ekoizpen ekologikorako laguntza-lerro hau 2021erako. Nekazaritza eta Abeltzaintza arloaren barruan, 3 espediente izapidetu dira ekitaldian, eta 51.773,98 €

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	10	3



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Animalien ongizaterako laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko azaroaren 24koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2021erako animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2106035e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/2106035a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekintza honen helburua, deialdiaren lehen urtean, abeltzaintza-eremuko zenbait elkarteri edo ustiategi-elkarteri laguntzea izan da, beren ustiategietan Welfair ziurtagiria lortzeko sortutako kostuetan, ziurtagiria lortzen lagunduko duten ekintzen bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Agindu horren bidez, lehen aldiz deitu da laguntza-lerro hau 2021erako, Welfair ziurtagiria lortzeko kostuak ordaintzeko. Guztira 159.965,22 €-ko zenbatekoa duten 7 erakunderi buruzko espedienteak izapidetu dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	5	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkarteentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

240/2017 DEKRETUA, urriaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkartei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

240/2017 DEKRETUA, urriaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkartei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena

AGINDUA, 2021eko otsailaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkartei dirulaguntzak emateko 2021erako deialdia egiten baita.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/02/2100870e.pdf>

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 27koa, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendariarena, 2021eko otsailaren 9ko Aginduaren babespean eskatutako diru-laguntzak onartzen dituena. Agindu horren bidez Ekonomiaren garapeneko, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkartei zuzendutako diru-laguntzak emateko modua arautzen du 2021rako.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Liburu genealogikoak kudeatzen dituzten abeltzaintza-elkarteek ekintzak garatu behar dituzte beren hazkuntza-programak martxan jartzeko, arraza zabaltzeko eta haien kontserbazioa edo animalia ugaltzaile onenen hautaketa ziurtatzeko. Azkenik, ustiategiak modernizatzen saiatzen da, liburu genealogikoak kudeatuz, hautaketa-programak gauzatuz eta errendimenduak kontrolatuz. Baliabide genetikoak kontserbatzea helburu izanik, aldi berean animaliak eta haien produktuak merkaturatzen lagundu nahi dugu, ekoizpenean eraginkortasun handiagoa eta abeltzaintzako ustiategiaren errentagarritasun handiagoa lortzea ahalbidetuz. Era berean, laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen eta mendi-nekazaritzaren garapena bultzatzeko balio dute.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

11 elkarteri lagundu zaie. Laguntza osotik (350.000 euro) 271.606,84 euro baino ez ziren justifikatu, eta horietatik 9ri murriztu behar izan zitzaizkien, pandemiak sortutako egoera dela-eta ezin izan baitira txapelketa eta erakusketa morfologikoak egin.

Elkarte horietan 922 ustiategi daude, 12.918 A.L.U. (26.484 abelburu eta 885 erlauntz).



Bestalde:

- Karrantzako arrazaren gaineko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzak eskudunei helarazi zaie.
- Montxina behi-arrazari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikotik Kantabriako elkartearekin lankidetzan aritzeko lan egin du, geldirik zegoena mugitu araziz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarteak	12	11





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021ko urriaren 6koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako 2021eko dirulaguntzetarako deialdiaren oinarriak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021005339&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021005339&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira.

Arau-esparru horri esker, honako eremu hauetako neurriak babestu ahal izango dira, besteak beste:

- I) Arrantza jasangarria, honako laguntza-lerro hauek izango dituenak: Berrikuntza; aholkularitza-zerbitzuak; ikerlarien eta arrantzaleen arteko elkarteak; giza kapitalaren sustapena; gizarte-elkarrizketa eta enpleguaren sorrera; arrantzale gazteentzako hasierako laguntza; arrantza-ontzietako edo banako ekipoetako inbertsioetako segurtasuna eta osasuna; arrantzak itsas ingurunean duen inpaktua mugatzea eta arrantza espezieen babesera egokitzea; itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioarekin lotutako berrikuntza; itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta berreskuratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak; ontziko inbertsioak, kontu-ikuskapenak eta azterketa energetikoak; eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea; balio erantsia, produktuen kalitatea eta nahi gabe hartutako harrapakinen erabilera; arrantza-portuak, ontziratze-tokiak, lonjak eta ainguralekuak.
- II) Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta -neurriak, honako laguntza-lerro hauek barne hartuz: Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta -neurriak; eta merkaturatze-neurriak.
- III) Akuikultura jasangarria. Berrikuntza, Akuikulturako inbertsio produktiboak: ekoizpena dibertsifikatzea, instalazioak hobetzea eta modernizatzea, produktuen kalitatea hobetzea, putzuak edo urmaelak leheneratzea. Akuikulturako inbertsio produktiboak: baliabideen efizientzia, uren eta kimikoen erabilera gutxitzea, birziklatzeko sistemak. Akuikulturako inbertsio produktiboak: efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriaren erabilera areagotzea. Akuikultura-ustategietarako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak. Giza kapitala eta sareko lana sustatzea.



Akuikultura-ekoizpeneko eremuen ahalmena handitzea. Akuikultura jasangarria lantzen duten akuikultura-enpresak sustatzea. Abereen osasunari eta ongizateari buruzko neurriak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Onartutako proiektuak, guztira, 105 izan dira, eta onartutako laguntzen guztizko zenbatekoa 9.538.908,21 €-koa da. Hona hemen laguntza-lerroen araberrako banaketa:

112 - Arrantzaren eragina mugatzea: (4 proiektu onartu dira); 47.871,00 €

113-Itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioa berritzea: (2 onartutako proiektua); 94.095,80 €

144 - Osasuna eta segurtasuna: (52 proiektu onartu dira); 1.905.104,58 €

148 - Produktuen balio erantsia eta kalitatea: (12 proiektu onartu dira); 844.767,13 €

149 - Arrantza-portuak: (onartutako 4 proiektu); 3.599.882,65 €

151 – Berrikuntza: (onartutako 2 proiektu); 355.631,00 €

153 – Aldaketa klimatikoaren eraginkortasuna eta arintzea – Itsasontzi barruko inbertsioak, auditoretzak eta energia-azterlanak: (8 proiektu onartu dira); 270.617,50 €

211 - Akuikulturako berrikuntza: (onartutako 2 proiektu); 658.245,98 €

221 – Akuikulturako inbertsio produktiboak: (onartutako 2 proiektu); 32.040,07 €

511 - Ekoizpen- eta merkaturatze-planak: (3 proiektu onartu dira); 1.419.383,57 €

513 - Merkaturatzeko neurriak: (14 proiektu onartu dira); 311.268,93 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. helburua: Arrantza-flota egokitzea 1. ekintza egitura-politika.		
2. adierazlea Itsasoan eta lurrian segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzei laguntzea (jarduketa kopurua) 2. ekintza: Ikerketa eta berrikuntza arrantza-flotaren lehiakortasunerako.	20	52
1. adierazlea Berrikuntzako komiteak sustatzea flota jasangarritasunerantz eraldatzeko (jarduketa kopurua).	1	1
2. adierazlea I+G+B garatzea flota bideragarri eta lehiakor bat lortzeko, arrantza-praktika jasangarriekin.		
2.1. adierazlea Efizientzia energetikoa optimizatzea (jarduketa kopurua).	5	8
2.2. adierazlea Hautagarritasuna hobetzea eta inpaktua gutxitzea ingurumenean (jarduketa kopurua).	5	4
2.3. adierazlea Jardueraren eraginkortasuna hobetzea (efizientzia, segurtasuna, kalitatea, etab.) (jarduketa kopurua).	20	12
3. adierazlea Itsasoan segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzak laguntzea (jarduketa kopurua).	20	52
2. helburua: Arrantza-sektorearen lehiakortasuna handitzea.		



3. ekintza Arrantza-sektoreko marketineko baterako kanpainak nahiz kudeaketa diseinatzea eta egitea.		
1. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiria eta horien balioa sustatzea (jarduketa kopurua).	3	3
2. adierazlea Ziurtagiri komuna kudeatzeko proiektuak sustatzea portuetan (proiektu kopurua).	1	2
3. adierazlea Marka bat garatzen laguntzea (proiektu kopurua).	1	0
4. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiriak/ekoziurtagiriak sustatzea (ziurtagiri kopurua).	1	0
3. helburua: Akuikultura espezializatua eta kalitatezkoa.		
1. adierazlea Akuikulturako inbertsio produktiboak.	1	2
2. adierazlea Akuikulturaren jakintza teknikoaren eta teknologia aurreratuaren sorrera bultzatuko da, arrantzaren eta nekazaritzaren sektoreak dibertsifikatzeko.	1	2
3. adierazlea Jakintza eta neurriak garatzea, kontrol zoosanitariorako eta animalien ongizaterako.	1	0
4. adierazlea EAEko akuikulturarako espezie berrien, ekoizpeneko sistemen nahiz ekipamenduen eta akuikulturako produktuen elikadura hobetzearen inguruko ezagutza garatzea sustatzea.	1	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2021eko dirulaguntzetarako deialdia egiten baita, Kantauri itsasoaren ipar-mendebaldean tresna txikiko arrantzaren erroldako flotari ezarritako atsedeen biologikoaren eraginpean dagoen eta egoitza-portua Euskal Autonomia Erkidegoan duen flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004558&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004558&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira.

Arau-esparru horri esker, honako eremu hauetako neurriak babestu ahal izango dira, besteak beste: arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea, tresna txikiko arrantzaren erroldako artisau-flotaren atsedeen biologikoa ezarritik.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 41 ontzik egin dute geldialdia, eta 87 tripulatuzailek (86 gizonek eta emakume batek)

Egindako gastua, guztira, 296.367,86 €-koa da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1.helburua: Arrantza-flota egokitzea		
1. ekintza: arrantza-flotaren egitura.		
1. adierazlea Arrantza-ontzien gaitasuna kudeatzea, doitzea eta erregulatzea: Arrantza-unitateak aldi baterako geldiaraztea (arrantza-unitateak)	39	41
2. adierazlea Tripulanteen kopurua	76	87
Gizonezkoak	76	86
Emakumezkoak	0	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Tokiko garapen parte-hartzailea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2021eko ekitaldirako partaidetzazko toki-garapenaren estrategiaren (PTGE) babeseko proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena. Estrategia hori Arrantza Sektorako Toki Ekintzako Taldeak (ATET) onetsi du, arrantza-eremuen garapen jasangarrirako, Europako 2014-2020 aldirako Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsaren (IAEF) esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004482&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004482&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da Itsas Garapen Elkarte Tokiko Ekintza Taldeari (aurrerantzean, ATET) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak onartutako partaidetzazko toki-garapenaren estrategien (PTGE) babespean gauzatutako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egitea.

Gainera, diruz lagundu daitezkeen proiektu eta jarduketek jarraian zehazten diren helburu hauetakoren bat lortzen lagundu beharko dute:

- a) Arrantzako produktuen balioa handitzea, enplegua sortzea, gazteak erakartzea eta berrikuntza sustatzea arrantzaren eta akuikulturaren produktuen hornidura-katearen fase guztietan.
- b) Hauetan laguntzea: arrantza-sektorearen dibertsifikazioa merkataritza-arrantzako sektorean edo hortik kanpo, ikaskuntza iraunkorra eta arrantza- eta akuikultura-guneetan enplegua sortzea.
- c) Tokiko ekonomiaren dibertsifikazioan laguntzea, lehentasunez arrantza eta itsasoa baliabideei atxikitako jarduera ekonomiko berrietarantz.
- d) Arrantza-guneetako arrantza, akuikultura eta itsasoaren kultura-ondarea sustatzea.
- e) Arrantza-komunitateen papera tokiko garapenean eta arrantza-baliabideen tokiko itsas-jardueren gobernamentua indartzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 86 laguntza onartu dira, eta laguntza-lerroen arabera banakatuta:

- Inbertsio produktiboak: 36; horietatik 3 emakumeek sustatu dituzte.
- Enplegua sortzea: 38 (16 gizon eta 22 emakume)
- Inbertsio ez-produktiboak: 12



Egindako gastuari dagokionez, onartutako laguntzen guztizko zenbatekoa 2.202.823,86 € izan da, eta laguntza-lerroen arabera banakatuta dago:

- Inbertsio produktiboak: 1.756.470,35 €
- Enplegua sortzea: 219.500,00 €
- Inbertsio ez-produktiboak: 226.853,51 €

Programa hau arrantza-sektorearen bideragarritasuna bermatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-udalerrietan hazkundea eta enplegua sortzeko sortu da, arrantza-produktuen balioa handituz eta tokiko ekonomia jardura ekonomiko berrietara dibertsifikatuz, besteak beste, «Hazkunde urdina» eta itsas sektoreak zentzu zabalean eskainiz.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. Ekintza      Sektoreari laguntzea eta haren jardura ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Sektorearen irudia hobetzea (ekintza kopurua).	1	0
2. adierazlea Arrantza-produktuak sustatzea, bultzatzea eta merkaturatzea (jarduketa kopurua).	4	9
3. adierazlea Gaitasun profesionala eta aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean.	1	0
4. adierazlea Emakumea arrantzaren sektorean sartzeko baldintzak hobetzea (jarduketa kopurua).	1	1
5. adierazlea Aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean (jarduketa kopurua).	1	0
6. adierazlea. Arrantza-sektorea dibertsifikatzea, sektoreko know-how-arekin zerikusia duten jardura berritzaileen bidez (jarduketa kopurua)	1	4
2. ekintza: Arrantza-herrien jardura ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Dibertsifikazioa, itsasoko eta arrantzako baliabideekin zerikusia duten jardura berriak ezarrita (proiektu kopurua).	4	4
2. adierazlea Itsasoko eta arrantzako ondarearen baliabideak berreskuratzea, kontserbatzea, nabarmentzea eta horiek aprobetxatzea (proiektu kopurua).	1	5
3. adierazlea Itsasoari lotutako ekimen turistikoak sortzea eta horiek modu jasangarrian garatzea (proiektu kopurua).	2	14



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itsasoratu Programa**

## 2.- Araua

Agindua, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ertaineko sailburuarena. Oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta 2021erako deialdia egiten duena.

Minimis erregimenari atxikitako laguntzak arrantza-enpresentzat, prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzeko ikasleak arrantza-ontzietan, Itsasoratu programa

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004504&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004504&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza-enpresentzako laguntza-programa bat da, arrantza-ontzietan nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleen prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzeko.

Arrantza-sektorearen errealitatean prestakuntza-praktika sustatzea da helburua, ontzi-arrantzako enpresei nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleak ontziratzen lagunduz, ontziratze-aldi bakoitzean sortutako gastuengatik laguntza ekonomikoaren bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Edizio honetan 14 gaztek (13 gizon eta emakume bat) eta 10 ontzik hartu dute parte, bai lantokiko prestakuntzan praktikak egiteko modalitatean (LP), bai tunidoen kanpainan udako praktikak egiteko modalitatean.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Ikasleen kopurua	16	14
Gizonezkoak	16	13
Emakumezkoak	0	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka**

## 2.- Araua

Agindua, 2021eko maiatzaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez beketarako deia egiten baita, 2020-2021 ikasturterako, Pasaiako Blas de Lezo Itsas Arrantzako Heziketa Zentroan, Bermeoko Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako ikastetxean nautika eta arrantzako ikasketak egiteko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003381&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003381&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuna emateko, beharrezkoa da itsas langileei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei beka emateko deialdia egitea, Europatik eskatzen denari egokitutako prestakuntza jaso dezaten aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Prestakuntza ekintzak horiek bultzatu dira beka programa baten bidez, hau da, 2020-2021 ikasturteari dagokionez, nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak honako hauetan egiteko beken deialdia: Blas Lezo - Pasaiako Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Itsas Arrantzako Prestakuntzarako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean. 141 bekadun izan dira (132 gizon eta 9 emakume).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Bekadunen kopurua	120	141
Gizonezkoak	115	132
Emakumezkoak	5	9





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**EAEko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2021erako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104555e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu eta bultzatzeko laguntzen araubidea iragartzea.

Arau honetan erregulatzen diren ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzen helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde jasangarriaren alde egitea eta lankidetzaren sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan.

Laguntza hauek emango dira xedea lortzeko:

- 1.– Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzak.
- 2.– I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak.
- 3.– Antolaketaren arloko berrikuntzarako laguntzak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2.192.379,75 euroko laguntzak eman dira EAEko oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko, garapen esperimentaleko eta nekazaritza, basogintza eta arrantza- eta akuikultura-produktuen antolamenduaren arloko bideragarritasun teknikoko eta berrikuntzako proiektuetan gastuak eta inbertsioak egiteko.

24 proiektu babestu dira eta 25 ukatu dira.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Eskaera-kopurua	67	49
Onartutako proiektuak	51	24



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gastrokop 2021 - Lankidetzeta eta berrikuntza gastronomikorako programaren minimis laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Gastrokop lankidetzeta eta berrikuntza gastronomikorako programaren minimis araubideari atxikitako 2021. urterako oinarri arautzaileak onartzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/gastrokop/web01-a2nekber/eu/>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da gastronomiaren arloko lankidetzeta-berrikuntzako proiektuak finantzatzea. Proiektu horien helburua da gutxienez bi erakunderen arteko lankidetzeta-moduak sustatzea.

Berrikuntza-proiektuarekin lotutako lankidetzeta-kostuak eta kostu zuzenak ordaintzeko bakarrik erabiliko dira, eta dirulaguntza ez itzulgarriak izango dira. Proiektuak egiteko epea urtebetekoa edo hainbat urtekoa izango da, aurkezten diren proiektuak egiteko behar dena gorabehera.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz laguntzen den inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa eta zuzeneko laguntza gisa diruz lagundutako zenbatekoa 527.309,78 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura finantzatzen da.

Guztira 25 proiektu lagundu dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskaera-kopurua	150	34
Onartutako proiektuak	100	25



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**EAEko elikaduraren eta zuraren kateko agenteen ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-departamentuak sortu eta garatzeko laguntzak 2021**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 29koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2021erako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta zuraren kateko agenteen ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-departamentuak sortu eta garatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/i+g+b-elikaduraren-eta-zuraren-katea/web01-a2nekber/eu/>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien helburua bikoitza da: batetik, erakundeen barne-sistemak garatu eta berritu nahi dira, batez ere, I+G sistemak; bestetik, negozio berriak erakarri nahi dira, nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, baliabideak optimizatuz.

Diruz lagun daitezkeen lerro hauek ezarriko dira agindu honetako 1. oinarriko xedea lortzeko:

1.- EAEko elikaduraren eta zuraren kateko sektoreetako erakundeetan I+G+B departamentuak sortzea eta garatzea indartzera eta haien presentzia handitzera bideratutako laguntzak. Laguntza-lerro horren barruan, honako ekintza hauek bultzatuko dira:

- 1.a) Departamentu berriak sortzea, banaka edo modu bateratuan zenbait erakunderen artean.
- 1.b) Dagoeneko badaude departamentuak indartzea eta hobetzea, balio eta ahalmen handiagoa emateko
- 1.c) Jakintza transferitzea eta sektoreko erakunde eta eragileen artean partekatzea, sektorearen lehiakortasuna erraztuko duten produktu, teknologia edo baterako prozesu berrien etorkizuneko I+G+B proiektuak identifikatzeko. EAEko enpresa-ehunean I+G+B kultura finkatzea da laguntza tipologia horren azken helburua; hori lortu nahi da ahalegin eta baliabide guztiak EAEko elikaduraren eta zuraren katearen eremuan I+G+B proiektuak sustatzera bideratuko dituzten departamentuak ad hoc sortuz eta I+G+B departamentuak garatuz.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoan aldeztu aurretik establezimendurik ez duten kanpoko enpresak erakartzea sustatzeko laguntzak, EAEn I+G+B zentroak instalatu dituzten. Lerro horren barruan, honako ekintza hauek babestuko dira:

- 2.a) Beren I+G+B negozioa EAEn instalatzeko interesa izan dezaketenen alderantzizko misioak.



Aurreko tipologiarekin bat etorri, laguntza honek helburu bera du: EAEko elikaduraren eta zuraren sektorean I+G+B jarduerak indartzea. Berezitasuna izango da azken horretara bideratutakoen helburua izango dela, berez EAEkoak ez izan arren, enpresak erakartzea, jada I+G+B arloan diharduten departamentuak integratuak dituztenak eta beren departamentu, zentro edo instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoan instalatzea erabaki dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa eta zuzeneko laguntza gisa diruz lagun daitekeen zenbatekoa 344.741,42 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura finantzatzen da.

8 proiektu babestu dira.

4 proiektu ukatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	40	12
Onartutako proiektuak	30	8



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan aurreikusitako lankidetzarako laguntzak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan (2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duena) aurreikusitako lankidetzarako laguntzak emateko 2021. urterako deialdiaren oinarriak onartzen dituena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104556e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen esparruan ematen diren laguntzak lankidetzak-kostuak eta proiektu pilotuaren kostu zuzenak estaltzeko bakarrik erabiliko dira, eta ez dira itzuli beharrekoak izango, eta proiektuak urtebetean zein hainbat urtean gauzatzekoak izango dira, aurkeztutako proiektuak egiteko aldiaren arabera.

Lankidetzarako laguntzetan, honako laguntza-lerro hauek ezarriko dira:

- 1.- Nekazaritza-ekoizpenaren eta -jasangarritasunaren alorrean EIPs Berrikuntzarako Europako Elkarteko (European Innovation Partnerships) talde eragileak sortzeko eta martxan jartzeko laguntzak.
- 2.- Nekazaritza-, elikagai- eta baso-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzeko laguntzak.
- 3.- Eragile txikien arteko lankidetzarako laguntzak, lan-prozesuak elkarrekin antolatzeko eta instalazioak eta baliabideak partekatzeko, baita landa-turismoarekin zerikusia duten turismo-zerbitzuak merkaturatzeko ere.
- 4.- Lankidetzan aritzen diren banaketa-kateko eragileentzako laguntzak, beren produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko, merkaturatze-bide laburrak eta tokiko merkatuak martxan jarrita edo garatuta, baita produktuak tokian-tokian ezagutarazteko jardueretarako ere.
- 5.- Eragileen elkarlanerako dirulaguntzak, klima-aldaketa apaltzeko edo horretara egokitzeko eta martxan dauden ingurumen-proiektuen eta -praktiken inguruko baterako planteamenduak egitekoak.
- 6.- Banaketa-kateko eragileen arteko lankidetzak horizontalerako eta bertikalerako laguntzak, elikagaiak egiteko, energia ekoizteko eta industria-prozesuak sortzeko biomasaren hornidura iraunkor bat lortzeko.



7.- Jarduerak dibertsifikatzeko lankidetzarako laguntzak, honako jarduera hauekin zerikusia dutenak: osasun-arreta, gizarteratzea, komunitateak babestutako nekazaritza eta ingurumenaren eta elikadurari buruzko heziketa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa edo gastua 284.778,77 eurokoa da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura zuzeneko laguntza gisa eta 1.139.114,99 eurokoa LGENFren kontura. LGENFren kontura kofinantzatutako laguntzaren zatia Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzten duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

Guztira 31 proiekturi eman zaie laguntza.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	30	34
Onartutako proiektuak	20	31



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2021eko Bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 29koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira bioekonomiako berrikuntza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako 2021eko deialdiaren oinarriak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105336e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea bioekonomiaren eremuan berrikuntzako proiektu pilotuak eta frogantza-proiektuak egitea sustatu eta bultzatzeko laguntzetarako deialdia egitea da.

Honako laguntza hauek emango dira:

1.- Jarduera bioekonomikoen proiektu pilotuak garatzeko laguntzak: Dirulaguntza jaso ahalko dute bioekonomiaren eremuan balio-kate berriak sortzeko proiektu pilotuek, baldin eta jatorri biologikoko lehengaiak eraldatzen badituzte eta balio erantsia duten produktuak lortzea badakarte.

2.- Jarduera bioekonomikoen frogantza-proiektuak garatzeko laguntzak: Dirulaguntza jaso ahalko dute bioekonomiaren eremuan balio-kate berriak sortzeko frogantza-proiektuek, baldin eta jatorri biologikoko lehengaiak eraldatzen badituzte eta balio erantsia duten produktuak lortzea badakarte.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa eta zuzeneko laguntza gisa diruz lagundutako zenbatekoa 1.586.333,65 eurokoa da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onartutako proiektuak	5	8
Inbertsio induzitua	0,65	0,15





#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzak 2021**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 29koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2021erako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105338e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatearen eta zuraren katearen industrian digitalizazioa txertatzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia egitea, lehiakortasuna hobetze aldera.

Laguntza-lerroak eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

- Enpresei digitalizatzen hasten laguntzeko laguntzak. Aurrerapauso bat egin eta sistema digitalak txertatu nahi dituzten enpresak dira. Zerbitzuak finantzatzeko aukera izango dute, hala nola digitalizazio integraleko planak ezartzea eta enpresaren jarduera-eremu guztietarako –esate baterako, kudeaketarako, ekoizpenerako eta merkaturatzerako– tresna digitalak txertatzea.
- Digitalizazio-fase aurreratuan dauden eta 4.0 teknologia txertatu nahi duten enpresetarako laguntzak. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, honako jarduera hauekin lotutako jarduketak:
  - Enpresen digitalizazio-egoeraren diagnostikoa, askotariko 4.0 teknologien ezarpen-maila baloratzeko
  - Azpiegiturak garatzea
  - Digitalizazioa ekoizpen-prozesuan eta produktuen kontrolean
  - Elikakatearen, zuraren katearen eta horien industriaren negozio-datuak analizatzea
  - Katearen ekosistema/konektagarritasuna ezartzea/business intelligence
  - Eskuratutako tresnak abian jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa eta zuzeneko laguntza gisa diruz lagundutako zenbatekoa 1.881.048,95 eurokoa da.

76 proiektu babestu dira eta 21 ukatu.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Eskara kopurua	60	97
Onartutako proiektuen kopurua	51	76



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ikertalent programa 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2021eko laguntzetarako (Ikertalent Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

115/2021 DEKRETUA, martxoaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baitira nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako prestakuntza-laguntzak (Ikertalent programa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101881e.pdf>

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2021eko laguntzetarako (Ikertalent Programa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104388e.pdf>

Ebazpena, 2022ko otsailaren 22koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2022ko martxoaren 13ko Ebazpena eta deialdia ebazten dituen.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua:

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntza-programa.

Programa honen helburua doktoregodun langilerik ez dagoen euskal nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektorearekin zerikusia duten ikerketa-arloetan doktorego-tesiak egitea sustatzea da, eta tesi horiek euskal egitura zientifiko-teknologikoan gehiago txertatu behar izatea, horrela ikerketa-taldeak sendotzeko.

Teknologoak prestatzeko laguntzen programa.

Programa honen helburua da euskal nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreko arloetan espezializatutako teknikariak prestatzea, etorkizunean sektoreko jardueran sar daitezen, sektoreko enpresen eta elkarten bitartez, edo agente zientifiko-teknologikoen jardueran.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ikertalent Programaren 2021eko deialdian doktoratu aurreko 9 beka eta teknologoek 6 beka eman dira.

2021eko deialdiaren aurrekontua (2022-2026 aurrekontua): 1.322.790 €.

Erabilgarritasun eta inpaktu sozial handia.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka berrien kopurua	22	15
Doktorego-tesien kopurua	5	11
Teknologoen kontratu berrien kopurua enpresekin	6	3
Bekadunen proiektu dibulgatuak	60	60



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehiatu Berria 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2021. urteko deialdiaren oinarriak (Lehiatu Berria programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103645e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritza eta Elikagaien produktuen transformazioari eta komertzializatzeko laguntzak, eta Arrantza eta Akutika ondoriozko produktuak. Laguntzak inbertsio-programa bati egokituko zaizkio. Programa hori urterokoa edo hainbat urtetarako izan daiteke, aurkeztutako proiektuak gauzatzeko aldiaren arabera, eta ordainketak egiten diren unean.

Lehiatu Berria programak hainbat laguntza bide aurreikusten ditu:

1. Nekazaritzako produktuen eraldaketan, komertzializazioan edo garapenean inbertsioak egiteko laguntzak.
2. Basogintzako produktuen eraldaketara eta komertzializaziora bideratutako inbertsioak egiteko laguntzak.
3. Arrantzako eta akuikulturako produktuen eraldaketan eta komertzializazioan inbertsioak egiteko laguntzak
4. Beste ataletan sartu ezin diren nekazaritzako eta elikagaigintzako industrietan inbertsioak egiteko laguntzak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hasierako aurrekontua 17.480.000 €zen eta 17.375.435,26 euroko laguntzak ebatzi dira. 61.986.573,42 €-ko Eragindako inbertsioaduten 126 proiektu lagundu dira. Laguntza FEAGA eta FEMP funtsekin parte hartzen, eta finantzatuta.

Laguntza maiztasuna % 28 da ia.

Inbertsio hori guztia gure industrietako lehiakortasunaren modernizazioan eta hobekuntzan egingo du, lan lanpostuen bideragarritasuna eta mantentzea bermatzeko. Aurrekonturik ez zegoenez, ezin izan ziren 27 proiektu baliagarri babestu.



## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	200	126
Eragindako inbertsioa	50	62



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehiatu Sustapena 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako dirulaguntzak emateko 2021eko deialdia egiteko dena. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira (Lehiatu Sustapena Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2003788e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da EAEn egoitza soziala duen nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak eraldatutako eta merkaturatutako elikagaiak, arrantzakoak eta basogintzakoak sustatzea Euskaditik kanpoko merkatuetan.

Diruz lagundutako ekintzak honako hauek dira: erakusketari edo bisitari gisa parte hartzea izaera profesionaleko eta internazionalako azoka edo lehiaketa komertzialetan; zuzeneko misioak eta produktuak Estatuaz kanpoko merkatuetan aurkeztea; alderantzizko misioak; Estatutik kanpoko merkatuetan soilik salmenta-puntua sustatzeko ekintza puntualak eta espezifikoak; eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean egindako ikus-entzunezko katalogoak eta materialak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021. deialdian, hasierako aurrekontua 500.000 €zen. Azken deialdietan, laguntza hau bitan banatu da (Lehiatu ardoa eta Lehiatu sustapena), upeltegiak elikagaien gainerako industrietatik bereizita, eta pandemiaren eragina, atzerrian sustapen-ekintzak egiteko ezintasunarekin, 9 proiekturi bakarrik eman zaie laguntza, 52.849,65 euroko laguntza eta 156.112,14 euroko eragindako inbertsioa. Programa honen baliagarritasunean sortuz jarraitzen da, azken bi urtetik behin saihesten badugu, Euskal Autonomia Erkidegoko industria elikatu eta demandatu ondo da programa bat.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	80	9



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehiatu Ardoa 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez ardogintza-enpresen kanpo-sustapenerako 2021eko laguntza-deialdia egiten baita –«Lehiatu ardoa programa»–.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104667e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ardogintzako enpresak kanpoan sustatzeko laguntzak, honako jarduera hauek diruz lagunduz: misio komertzialak, azoketara joatea, produktuak aurkeztea eta saltokietan sustatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontua 600.000 €-koa izan zen. 35 eskabideri eman zaie laguntza, guztira 260.979,87 €, eta 561.039,75 €-ko inbertsio induzitua dakarte. Bi urteko pandemiatik gatoz, sustapen-jarduerak egiteko gaitasun oso mugatuarekin, eta, beraz, sektoreak erantzun ona ematen dio deialdiari.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	50	35





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**MAE Sustapena 2021/2022 - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2020ko azaroaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzen deialdia egiten duena 2021. urterako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/12/2005306e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegorako Europako Erkidegoko erregelamenduko eta estatuko oinarrizko araudiko mahastizaintza eta ardogintzako sektoreko Erkidegoko laguntza neurrien garapena eta aplikazioa ezartzea hirugarren herrialdeetako merkatuak sustatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021 deialdian 28 espediente onartu dira 9.492.156,47 €laguntza guztira eta 21.816.034,14 €inbertsio inducida. Antzeko erantzuna da aurreko urteetara, nahiz eta pandemia oso eragin izan du promozio-ekintzen kopurua, eta bertan egin ahal diren herrialdeei. Europako funtsak eta EAEko proiektuak finantzatzen dituzten laguntzak dira, Autonomia guztietako egitasmoak hartzen dituzte.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	35	28



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**MAE Inbertsioa 2021 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2020ko irailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako 2021. urteko laguntzen deialdia egiten baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004253e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko enpresen errendimendu globala hobetzea eta merkatuko eskarrietara egokitzea, bai eta lehiakortasuna handitzea ere, ardogintzako eraldaketa- eta azpiegitura-instalazioetan egiten diren inbertsio ukigarri edo ukiezinei finantza-laguntza emanaz, bai eta merkaturatze-egitura eta -tresnei ere, energia aurrezte, energia-eraginkortasun globala eta prozesu jasangarriak hobetzeko ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko deialdian 27 proiektu onartu dira, 3.075.325,01 €-ko laguntza eta 7.835.402,08 €-ko eragindako inbertsioa batuz. Europako funtsekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko proiektuak beste autonomia-erkidego guztiekin lehiatzen dira.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	30	27
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	15	8



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**ARDOINB 2021 - Mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzak, minimis laguntzen araubidea baliatuta**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko azaroaren 2koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzen deialdia egiten baita 2021erako, de minimis laguntzen araubidea baliatuta.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105775e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera egindako 2021eko deialdian artatzerik izan ez diren mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko inbertsio-proiektuei laguntzea. Erregelamendu hori mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean laguntzeko programa nazionaleri eta Espainiako mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko 2019-2023 programako neurriak aplikatzeko urtarrilaren 12ko 5/2018 Errege Dekretuari buruzkoa da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programa honen aurrekontua 731.000 €izan da eta 21 espediente bete dira, 667.859,71 euroko laguntza eta 2.187.800,43 euroko eragindako inbertsio batera.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	20	21
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	6	2



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Fruta-eta barazki-ekoizleen erakundeei laguntzak 2021**

## 2.- Araua

1179/2018 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen erakundeen funts eta programa eragileak arautzen dituena.

558/2020 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, fruta eta barazkien eta mahastizaintza eta ardogintzaren arloan Europar Batasuneko erregelamenduak garatzeko oinarritzko araudia ezartzen duten zenbait errege-dekretu aldatzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.boe.es/boe/dias/2018/09/22/pdfs/BOE-A-2018-12836.pdf>

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/06/10/pdfs/BOE-A-2020-5899.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Erakunde ekoizleak merkatuen antolaketa komunaren oinarria dira, eta beharrezkotzat jotzen da fruta eta barazkien sektorean asoziazionismoa bultzatzea, egungo merkatuaren eskaerei aurre egiteko; izan ere, merkatu hori izugarri lehiakorra da, eta kalitatea gero eta zorrotzagoa da. Bakarrik elkartuz, eskaintza kontzentratuz, ekoizpena eta aldizkakotasuna kontrolatuz, merkaturatze-kostuak murriztuz eta merkatuaren beharretara egokituz lortuko dute ekoizleek arrakasta. Bestalde, ekoizpen-teknikek ingurumena errespetatzeko beharra azpimarratzen da, bai hazkuntza-sistemetan, bai erabilitako materialen kudeaketan.

Fruta eta barazkien MABek fruta- eta barazki-erakundeak sustatzen ditu, eta, horretarako, FBEEetan egiten diren programa operatiboak gauzatzeko erabiltzen diren funts operatiboak finantzatzen ditu.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Batera finantzatutako laguntzak dira. EAEn bi FBEE baino ez daude onartuta. Biek dute onartutako programa operatibo bat, laguntzak jasotzeko eskubidea ematen diena. Guztira 349.470,48 € jaso dituzte, 360.000 €-ko hasierako partidatik. Laguntza hori gabe, ekoizleen elkarteak ez ziren sortuko, nekazaritza-politika bateratuaren lehentasunezko helburua. Mantentzeak lehen sektorea indartzen du eta biztanleria finkatzen du.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Fruta eta Barazki Ekoizleen Erakundeari atxikitako enpresak.	2	2
Eragindako gastua (milioi eurotan).	2	0,7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan barne jasota dauden nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteentzako laguntzak 2021**

## 2.- Araua

10/2018 Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzkoa.

AGINDUA, 2021eko irailaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteentzako 2021eko ekitaldirako laguntzen deialdia egiten baita. Laguntza horiek 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota daude.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/02/1800649e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104986e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Asoziazionismoa sustatu nahi da, eta nekazaritza-ekoizleen elkarteak eta horien batasunak sortzea finantzatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Elkartearen bizitzako lehen 5 urteetan eska daitekeen laguntza gisa ezartzen da, eta elkarrekin merkaturatzeko gai diren produkzioaren ehuneko gisa kalkulatu da laguntza. Gehienez 100.000 euro onuradun bakoitzeko. Aurrekontu-zuzkidura 400.000 €-koa izan da, LGENF funtsekin batera finantzatutakoak, eta 362.239,32 €erabili dira. Helburua da ekoizleek banaketa-kateen aurrean negoziatzeko duten gaitasuna indartzea, elikatze-katearen lehen mailatik bidezko prezioak lor ditzaten, jarduerari eustea eta errenta duina ziurta dezaten

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	4	4



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**BASQUEWINE 2021**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko 2021eko laguntza-deialdia egiten baita "Basque Wine programa".

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104668a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da BASQUE WINE markako produktuen barne-merkataritzan Euskadiko ardoaren, sagardo naturalaren eta eskuz egindako garagardoaren kontsumitzaileen artean sustatzea. Laguntza honen ondorioetarako barne merkataritzatzat jotzen da Espainiako Estatu barruan merkatu guztiak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza horren lehen deialdia izan da, eta sektoreak beste inolako laguntzarik jasotzen ez zuten eta funtsezkotzat jotzen ziren sustapen-jardueretarako eskari gisa sortu zen. Eskaera entzun zen eta 1.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidura ezarri zen. Egia esan, eskaera hori ez zen laguntza-eskaera bihurtu. 34 proiekturi eman zaie laguntza, 201.458,33 €-ko guztizko laguntzarekin eta 335.763,88 €-ko gastu induzituarekin.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspen</u> <u>a</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	250	34
Eragindako gastua (miloi eurotan)	2	0,3



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, artisau-garagardoaren eta ontziratutako uraren sektoreetarako 2021erako aparteko laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, artisau-garagardoaren eta botilatutako uraren sektoreetara bideratutako 2021. urterako ezohiko laguntzak onartzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103644e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ardoa, txakolina, sagardoa, garagardoa eta botilako ura ekoizten duten enpresen egungo egoerari egonkortasuna ematea, honako laguntza-lerro hauen bidez:

Ardoa eta txakolina destilatzeko laguntza

Krisi-destilaziorako laguntza bat ezartzen da, borondatezkoa, honetarako:

- Gutxienez % 11ko alkohol gradua duen ardo soltea, 2020/2021 kanpainan EAEn ekoitzia.
- Solteko txakolina, gutxienez % 9,5eko alkohol graduarekin, 2020/2021 kanpainan EAEn ekoitzia.

Ekoizleak destilategiari entregatutako ardoak edo txakolinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamenduaren VII. eranskineko II. zatiko 1., 4., 5. eta 6. ataletan jasotako definizioei erantzun behar die. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza-produktuen merkatuen erakunde erkidea sortu zen, eta 922/72 (EEE) Erregelamendua (EEE), 234/2007 (EEE) eta 1279 (EE) Erregelamenduak indargabetu ziren.

Ardoa eta txakolina modu pribatuan biltegitzeko laguntza

BJI duen ardoa edo BJI duen txakolina borondatez modu pribatuan biltegitzeko laguntza bat ezartzen da.

Ardoa edo txakolina egiten den establezimenduak eta biltegitzea egiten den establezimenduak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egon behar dute, bai eta bere Orientazio Departamentuan zehaztutako lurraldearen barruan ere.

Sagardo naturala ozpinetara bideratzeko laguntza

EAEn ekoizitako sagardo naturala borondatez kentzeko laguntza ezarri da, ozpin bihur dadin.



Ur mineral naturala modu pribatuan biltegitzeko laguntza

Ur mineral naturalaren borondatezko biltegitratze pribaturako laguntza bat ezartzen da botilaratzeko enpresentzat.

Bai botilaratzen den establezimenduak, bai ura biltegitratzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egon behar dute.

Artisau-garagardoa egiten duten enpresen enpresa-kaudimena babesteko laguntza

Laguntza bat ezarri da 2020ko ekitaldian garagardoaren sektoreko eragiketen bolumen-galerak konpentsatzeko 2019ko ekitaldiarekin alderatuta.

Enpresa fabrikatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egon behar du, eta EAEn benetan fabrikatutako produktua bakarrik hartuko da kontuan..

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Kovid-19ko pandemia duen krisiaren aurkako borroka neurri estra gisa finkatu zen.

10.000.000 € dotatu zen. 147 eskaera lagundu dira, 4.477.393 €ko laguntza guztira.

6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak (\*)

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuak	-	147

(\*) Ez dago Diru-laguntzen Plan Estrategikoan, COVID-19aren ondorio den ezohiko neurria delako.





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**EAEko abeltzaintzako ustiategietarako aldi baterako laguntzak 2021eko ekitaldirako**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira EAEko esnetarako behien, haragitarako behien, ardien, ahuntzen, haragitarako eta erruterako hegaztien, txerrien, untxien eta zaldien abeltzaintzako ustiategiei laguntzak emateko aldi baterako araubidea 2021eko ekitaldirako. Laguntza horiek COVID-19ak eragindako alarmaren ondoriozko aldi baterako laguntza-esparruaren babesean ematen dira

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105538e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ohiz kanpoko laguntza honen helburua da abeltzaintza-jarduerari eustea EAEko esnetarako behien, haragitarako behien, ardien, ahuntzen, haragitarako eta erruterako hegaztien, txerrien, untxien eta zaldien sektoreetan. Helburua da ustiategi horiei laguntzea eta, horrela, ustiategi horiek jasaten ari diren zailtasunak arintzea, COVID19 delakoak eragindako merkatu-zailtasunen ondorioz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Dotazio ekonomikoa hasierako 12.000.000 €zen eta jasotako eskaera kopurua (2.016) 14.500.000 € gora zen. 12.246.826,59 € jotzen diren laguntza eskaera jaso dira. Laguntza hauek jo ahal izateko 2.500 eskaetan kontuan hartuta, sektore horretan eragin oso garrantzitsua izan da eta oso beharrezkoa zela adierazten da.

## 6. – Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak (\*)

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erantzundako eskaerak	2.500	2.016

(\*) Ez dago Diru-laguntzen Plan Estrategikoan, covid-19aren ondorio den ezohiko neurria delako..



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak**

## 2.- Araua

43/2017 DEKRETUA, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

AGINDUA, 2021eko ekainaren 2koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta jateko produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena, 2021eko ekitaldirako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/02/1700875e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103468e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/01/2200504e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Nekazaritzako ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Neurri horrekin, produktuak elikadura-katean gehiago integratu nahi dugu, gure sektore ekoizlearen eta, neurri txikiagoan, eraldatzailearen zeregina indartuz. Elikadura-katearen barruan balio erantsia sortzearen aldeko apustua egiten dugu, kalitate ziurtatua eta aitortua duten euskal produktuen posizionamendu handiago eta hobearen bidez Erkidegoko merkatuan. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek Euskadiko kalitate bereizi eta ziurtatuaren estrategian parte-hartze handiagoa izatea sustatzen dugu, gure nekazaritza-politikaren eta gastronomia ospetsuaren oinarria baita.

Horretarako, aipatutako Aginduan bi laguntza-ildo ezartzen dira:

- M03.1 Nekazariak kalitate-erregimenetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza.
- M03.2 Ekoizle-elkarteek barne-merkatutarako ezarritako informazio- eta sustapen-jardueretarako laguntza.

Laguntza horien helburua nekazariak elikagaien kalitate-erregimenetan lehen aldiz sartzea eta erregimen horietan onartutako produktuen informazio- eta sustapen-jardueretan parte hartzea sustatzea da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean 113 onuradunek parte hartu dute lehen aldiz kalitate-erregimen batean, hau da, aurreko urtean baino % 22,6 gutxiago. Kontuan hartu behar da osasun-krisiak eragindako egoera, 2021ean oraindik ere nabarmendu dena. Aurten, azpineurri horretarako aurrekontu-kreditu osoaren % 60 baino ez da exekutatu.



Kalitatezko produktuen merkatu komunitarioan informazio- eta sustapen-jarduerak garatzen dituzten ekoizle-taldeentzako laguntzen ildotik, 7 izan dira onuradunak, iaz baino bi eskaera gutxiago. Kasu honetan, onuradunen kopurua txikiagoa izan den arren, erabilitako kredituaren % 95 exekutatu da.

Programaren hasierako aurrekontu-aurreikuspenak (bi kapituluak barne) 712.780,62 €-koak izan ziren, eta aurrekontua 601.160,99 €-koa izan da, hau da, hasierako kredituaren % 84,34.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kalitatezko ekoizpenean lehen aldiz parte hartzen duten eragileak	250	113
Ekoizleen elkarteak (Informazioa eta sustapena)-.	18	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko programa**

## 2.- Araua

- AGINDUA, 2021eko ekainaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2021eko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten duena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuari jarraikiz.
- 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103424a.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103424a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/02/2200708a.pdf> (erroreen zuzenketa)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresei diru-laguntzak ematea da, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten.

Honako inbertsio-lerro hauek babesten dira:

- a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haragoko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.
- b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterlanak egiteko laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza batzuk betez gero.
- e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.
- f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.



### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko ekitaldirako aurrekontuen memoriak kalkulatzeko 100 enpresak jasoko zutela diru-laguntza, eta laguntzak bultzatuta enpresek 25 milioi euroko inbertsioak egingo zituztela. Hasieran aurreikusitako laguntzak lortu dituzten proiektuen eta enpresen kopurua lortu ez den arren, 39 milioi eurotik gorako inbertsioa sustatzea lortu da, hasierako aurreikuspena gaindituz.

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Enpresei diruz lagundutako proiektuen kopurua	100	90
Diru-laguntza jaso duten enpresen kopurua	100	73
Enpresei emandako laguntzetatik ondorioztatutako inbertsioen zenbatekoa. (Milioika eurotan)	25	39,44
Diru-laguntzaren ehunekoa, azkeneko inbertsioetik	7%	10,01%

Deialdi horretarako 145 eskabide jaso ziren, eta atzera egin zutenak kenduta 116 geratu diren; horietatik, 90 esleitu egin ziren.

Prozedura arrunta: erabaki da 41 enpresak (% 63 ETEak direla) aurkeztutako 49 proiektu diruz laguntzea. Banaketa tematikoari dagokionez: osoko zenbatekoaren % 24 kutsadura atmosferikoari buruzko 11 proiektu sostengatzera zuzenduko da, % 69 hondakinen sorrera minimizatu edo ezabatzea zuzendutako 31 proiektutarako izango da, % 2 uraren kutsaduraren aurka borrokatzea edo baliabide hori aprobetxatzera zuzendutako 2 proiektutarako, % 1 lurzorua saneatzeko/deskontaminatzeko 3 proiektutarako, % 0,5 azterketa bat egiteko, eta, azkenik, % 3,5 zaraten sorrera minimizatzeko/murrizteko proiektu bat gauzatzeko.

Prozedura erraztua: ETEei zuzendutako laguntzak ingurumenaren alorreko kanpo-aholkularitzako zerbitzuen kanpo-kostuak finantzatzeko abiatu dira. Zenbateko osoaren % 19 zortzi ingurumen-azterlan finantzatzeko izango dela, eta % 42 hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko beste bederatzirekin proiektuak laguntzeko. Lurren saneamendurako bi proiektu guztizkoaren % 5 jasotzen dute, beste bik % 6 kutsadura atmosferikoa murrizteko, eta % 2 usainak murrizteko proiektu bat diruz laguntzera bideratuta dago. Gainerako % 26a enpresa txiki eta ertainei laguntzeko berrogeita sei inbertsio-proiektu diruz laguntzera bideratzen da.

2021ko deialdira zuzendutako aurrekontu-zuzkidura 4.000.000 euro izan ziren.

Emandako 90 diru-laguntzei dagokien inbertsio garbiaren osoko zenbatekoa 39.441.205,90 € dira; zenbateko hori 57.638.909,67 €-ko inbertsio gordin bati dagokio.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

2021eko diru-laguntzetarako deialdiaren emaitzei dagokienez, diruz lagundutako proiektuetatik espero den inpaktuari buruzko datuak soilik daude eskuragarri; izan ere, 202/2017 Dekretuaren 5. artikuluan ezartzen den bezala, gauzatze-epaia diruz lagundutako proiektuan aurreikusten dena izango da, eta beraz gehienez 2 urte eta 6 hilabetekoa izan daiteke urteko deialdia argitaratzen denetik; beraz, jarduera hauek 2023ko abenduaren 9ra arte luzatu daitezke.

Adierazlea	Espero diren emaitzak
Enpresek egindako inbertsio garbia	39.441.205,90 €
Emisioen murrizketa	20 tona isurtze barreiatu, eta 0,5 tona SO <sub>2</sub> .
Hondakinen murrizketa	1.097 tona hondakin arriskutsu eta 2.211 tona hondakin industrial ez-arriskutsu.
Hondakinak birziklatzea edo errebalorizatzea	41.215 tona hondakin industrial ez-arriskutsu eta 6.130 eraipen-eraikuntzako hondakinak.



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Eskolako Agenda 2030 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen deialdia egiten baita 2021-2022eko ikasturterako**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko apirilaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 2030 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita 2021-2022ko ikasturterako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2102342e.shtml>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105130e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-prozeduraren bidez, 2021-2022ko ikasturtean Eskolako Agenda 2030 programa garatzeko.

Diruz lagun daitezkeen proiektuen jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 452 diru-laguntza eman dira 2021. urtean, hau da, 2020ko deialdian baino %4,63 gehiago.

2020-2021 ikasturterako deialdian 231.827 ikaslek hartu dute parte, hau da, 2020ko deialdian baino % 6,03 gehiagok. Irakasleei dagokienez, 1.864 aritu dira AE2030 proiektuan (bai koordinatzaile bezala eta baita Talde laguntzaileko partaide gisa ere), irakasle ez diren langileez eta parte hartzen duten udalerrietako teknikari eta arduradunetz gain.

EAEko 111 ikastetxek lortu dute Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria, ikastetxe bat gehiago 2020arekin alderatuta.

Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, guztira 1.000.000€ erabili dira laguntza horretarako, eta bi ordainketatan banatu da: lehen ordainketa, diru-laguntza eman zen unean egin zen, guztira 810.000€ izan ziren (guztizkoaren% 81); eta bigarren ordainketa, jasotako diru-laguntza justifikatu ondoren burutu zen, guztira 190.000€ (gainerako% 20a).



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Eskolako Agenda 2030 programa garatu duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen kopurua.	450	452
Eskolako Agenda 2030 programan dauden unibertsitatez kanpoko ikasleen ehunekoa.	70%	56%
Eskola Agenda 2030 programan dauden Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.	10%	55%
"Eskola jasangarri" gisa aitortutako ikastetxeen kopurua.	85	111
Haur eta Gazteen Konferentzian (CONFINT) parte hartu duten ikastetxe iraunkorren kopurua.	20	17





1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten elkarte, erakunde pribatu, boluntarioritza-erakunde eta fundazioentzako dirulaguntzak**

2.- Araua

Agindua, 2021eko maiatzaren 26koa, (EHAA, 116. zk., ekainaren 15ekoa) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten elkarte, erakunde pribatu, boluntarioritza-erakunde eta fundazioentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri eta horiek emateko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103402e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programaren 1. helburu estrategikoak ("gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz") ekosistemen eta haien zerbitzuen galera mugatzea jasotzen du bere jarduketa-ildoan artean, eta, horretarako, bere jardueren artean sartzen ditu natura-ondarea hobeto kudeatu eta kontserbatu ahal izateko ezagutza hobia izatearekin lotutako jarduerak.

Ildo beretik, 2030erako Biodibertsitate Estrategiak "naturaren ezagutza eta kultura sustatzea" ezarri du bere lau helburuen artean. Helburu horretan kokatzen da naturalismo zientifikoaren esparru honetan lan egiten duten erakunde eta elkarteei zuzendutako laguntza-programa hau, gizarteko eragile guztien erantzunkidetasuna ere sustatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 12 eskabide aurkeztu dira, guztiak epearen barruan. Eskabide horien balorazioa egin ondoren, ezarritako baldintzen arabera dirulaguntzen zenbatekoa zehaztu zen, diruz lagun daitezkeen gastuetarako aurrekontu-zuzkidura konprometitu arte.

Programaren aurrekontua 180.000 €koa izan da.

6 ikerketa-proiektu diruz lagundu dira: 2 Araban, bat Bizkaian eta 3 Gipuzkoan. Aurrekontuan, dirulaguntzak % 35,40 dira Araban, % 22,80 Bizkaian eta % 41,80 Gipuzkoan.

Gaien arabera, proiektu gehienak flora eta fauna basatiaren kontserbazioarekin lotutako hainbat alderditan oinarritzen dira, eta ohikoagoak dira faunarekin lotutakoak.



Ikerketa-proiektuak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa da. Izan ere, dagokion agindua izapidetu behar da, eta horrela bermatzen da fauna eta flora osoaren jarduera-aldi bat, udaberria-uda-udazkena. Ikerketa-gai batzuek jarduera-aldi oso bat behar dute, bi ez direnean, landa-datuak kontrastatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	12	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Toki Erakunde Publikoentzat**

## 2.- Araua

Agindua, 2021eko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita. Dirulaguntzak zuzenduta daude garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, kontzejuei eta udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko beste edozein tokiko erakunderi, kuadrillei, eskualdeei, metropolialdeei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei, tokiko merkataritza-sozietateei, tokiko enpresa-erakunde publikoei, tokiko partzuergoei eta tokiko fundazio publikoei.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

[https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2021/09/21/\(2\)/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2021/09/21/(2)/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/)

Emakida:

[https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/res/2021/12/30/\(8\)/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/res/2021/12/30/(8)/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten EAEko toki-erakundeek jaso ahal izango dituzten dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta dirulaguntza horietarako deialdia egitea, honako lerro hauekin bat etorriz:

- (a) Lurzoru kutsatuak. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko, prebenitzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak, lurzoru artifizializatu hutsen inbentarioak barne.
- (b) Klima-aldaketa. Arintzera (berotegi-efektuko gasen isuri garbien murrizketa), CO<sub>2</sub> xurgapenera eta egokitzapenera (plangintza eta ekintzak) bideratutako ekintzak klima-aldaketak EAEn dituen efektuak murrizteko.
- (c) Natura-ondarea. EAEko dibertsitate biologiko eta geologikoa kontserbatzen, leheneratzen edo hobetzen lagunduko duten ekintzak.
- (d) Ekonomia zirkularra. Tokiko zirkulartasuna sustatzen duten ekintzak.
- (e) Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza Tokiko Agenda 21 edo Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.



#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean, 221 eskaera jaso dira guztira. Eskaeren lerrokako banakapena hau da: Lurzoru kutsatuak: 23; klima-aldaketa: 52; natura-ondarea: 51; ekonomia zirkularra: 49; eta jasangarritasunaren aldeko hezkuntza: 46.

Aurkeztutako eskaeretatik, 138 proiektu diruz lagundu dira.

2021eko deialdirako aurrekontu-zuzkidura 3.480.000,00 eurokoa izan zen, eta honela banatu zen:

1. Lurzoru kutsatuen lerroko 16 proiektuk 404.060,76 € jaso dituzte.
2. Klima-aldaketaren 26 proiektuk 1.000.000,00 € jaso dituzte.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarearen 25 proiekturi emandako dirulaguntza 971.049,53 €-koa izan da.
4. Ekonomia zirkularreko 25 proiektuk 624.889,71 € jaso dituzte.
5. Jasangarritasunaren aldeko hezkuntzarako 46 proiektuk 334.342,24 € jaso dituzte

#### **Ingurumen-emaitzak**

2021eko dirulaguntza-deialdiaren emaitzei dagokienez –jarduketa horiek gauzatzeko epea 2023ko urriaren 28an amaitzen denez–, diruz lagundutako proiektuei dagokienez aurreikusten den ingurumen-inpaktu potentzialari buruzko datuak bakarrik daude:

Klima-aldaketaren lerroan dirulaguntza esleitu zaien 26 proiektuek 527,01 tona CO<sub>2</sub> murriztea lortuko dute, eta 9.011,26 tona CO<sub>2</sub> atzematea, 304 lur-hektarea baino gehiago landatzeari eta basoberritzeari esker. Jarduketa-lerro honen proiektuek, halaber, 5,27 km-ko bidegorria eta 258 aparkaleku egitea aurreikusten dute, udalerrien barruko trafikoa saihesteko, eta ibilgailu elektriko berri bat erostea udal-flotentzat. Era berean, 10 udalerrik klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketari egokitzeko plan integratuak egingo dituzte; halaber, neurriak abian jarriko dituzte, lurraldearen erresilientzia handituz klimaren inpaktu negatiboari aurre egiteko.

Natura-ondarearen lerroko proiektuei dagokienez, diruz lagundutako 25 proiektuetatik proiektu garrantzitsuenen tipologiak aurten ere intereseko habitatak berreskuratzera eta/edo berroneratzera bideratu dira. Guztira, diruz lagundu beharreko proiektuek batasunaren nahiz eskualdearen intereseko habitaten 166 hektarea baino gehiago kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea sustatzen dute, baita ingurumena berreskuratzeko jarduketak egingo diren 47 hektareako lurak erostea ere, eta Natura 2000 Sareko 463 hektareatan jardutea. Intereseko habitatak hobetzeko eta leheneratzeko funtsezko jarduketetako bat izango da 36 hektarea baino gehiagotatik espezie exotikoak ezabatzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko landarediaren 20.000 landare autoktono baino gehiago landatzea ere. Jarduketetako asko kalteberak diren fauna-taldeei zuzenduta daude –kiropteroei, anfibioei edo intsektu saproxilikoiei, esaterako–, 56 hezegune hobetuz eta leheneratuz, eta 180 babesleku natural nahiz artifizial baino gehiago antolatuz eta egokituz. Espezie mehatxatuen kontserbazioak ere zeregin garrantzitsua izango du, desagertzeko arriskuan dauden espezieak sartuz, hala nola uretako hirusta (*Menyanthes*



*trifoliata*), *Berula erecta*, nenufar zuria (*Nymphaea alba*), *Thelypteris palustris*, *Senecio carpetanus* edo bisoi europarra (*Mustela lutreola*). Azkenik, azpimarratu behar da geodibertsitatearen kontserbazioak ere pisu handia duela, Interes Geologikoko 4 Lekuren babes eta balio nabarmenduz.

Lurzoru kutsatuei dagokienez, diruz lagundutako jarduketa onetsiak bideratuta daude 114.000 m<sup>2</sup>-tik gorako guztizko azalera aztertzeraz; 17.600 m<sup>2</sup>-ko azalera globala osatzen duten areak berreskuratzera; eta lurren 68.160 m<sup>2</sup>-ri ingurumen-jarraipena eta -kontrola egitera.

Bestalde, ekonomia zirkularra sustatzeko 25 proiektu diruz lagundu dira. Ekonomia zirkularraren proiektuen bidez, gaikako bilketa handitu eta errefus-hondakinen sorrera murriztu nahi da: aurreikusten da urtean 8.093,53 tona errefus-hondakin gutxiago biltzea eta 503,02 tona artekoa izatea biohondakinen gaikako bilketa hondakin organikoetara dagokienez. Dirulaguntza jaso duten beste jarduketa batzuek helburu hauek dituzte: 49 konposterako instalaziotan kontrol analitikoak garatzea konpostatutako materialen kalitatea zehazteko; udalerrien garbiketa-zerbitzuetarako 820 m<sup>3</sup> arte ur berrerabiltzea; ekonomia zirkularreko prestakuntza-ekintzak 13 tailerrekin; 0,50 tona zuntz-zementuren gaikako bilketa; 787,55 tona elikagaiaren aprobetxamendua; eta itsasoko eta itsas ingurunekeo plastiko-hondakinen 800 kg-ko bilketa.

Azkenik, jasangarritasunaren aldeko hezkuntzaren lerroak 103 udal eta 344 ikastetxe baino gehiago inplikatu ditu, 179.380 ikasle baino gehiago bilduz hainbat esparrutan: Garapen Jasangarrirako Helburuak, Lurreko Ekosistemak, Hiri eta Komunitate Jasangarriak, Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak eta Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza.

Ingurumena zaintzeak eta natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzeak eragin positiboa dute, zuzenean eta zeharka, giza osasunean. Giza osasunean edozein arrisku saihestek zuzenean eragiten die diru-kutxa publikoetara, osasunean aurrezten den neurrian.

Aipatutako efektuek efektu ekonomiko positiboak dituztenez eta, gainera, ingurumenean eta herritarren bizi-kalitatean efektu positiboak dituztenez, Agindu-proiektua ekonomikoki justifikatzen da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Toki-erakunde onuradunen kopurua	75	96
Urtean murriztutako CO <sub>2</sub> tonak (tCO <sub>2</sub> /urte urtean)	1.000	527+9011
Atmosferan saihestutako partikulen kilogramoak (kg PM10/urte)	500	d.g.
Urtean saihestutako oxido nitroso kilogramoak (kg NO <sub>x</sub> /urte)	1500	d.g.
Hobetutako eta/edo leheneratutako intereseko habitatak (ha)	100	166
Hobetutako eta/edo leheneratutako Natura 2000 Sarearen azalera (ha)	80	463
Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruen hektarea ikertuak edo berreskuratuak (ha)	15	17,6



Ekonomia zirkularreko proiektu-kop.	10	25
Gaikako bilketaren gehikuntza hondakinen kg-tan	4.500	8.093
Udalekin beren Eskolako Agenda 21 koordinatu duten ikastetxeen kop.	360	344



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2021. Dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei, ingurumen-boluntariotzako proiektuak gara ditzaten**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, EAEn ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105402e.shtml>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/01/2200236e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Norgehiagoka-prozeduraren bitartez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzeko eta laguntzok deitzeko helburua du agindu honek; irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuek jaso ditzakete laguntza horiek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badituzte ingurumen-boluntariotzako proiektuak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- 2021ean esleitutako aurrekontuaren % 100-a gauzatu da (100.000 €).
- Guztira 16 proiektu aurkeztu dira 2021eko ekitaldiko deialdira. Aurkeztutako 16 eskabide horietatik 14 diruz lagundu dira (9 Bizkaikoak dira, 3 Gipuzkoakoak, 1 Arabakoa eta 1 Estatu mailakoa).
- Proiektuetan parte hartu duten pertsonen kopurua: 2.093 (Gizonak: 1.117, Emakumeak: 976)
- Proiektuen gai nagusiak:
  - Ingurumena eta paisaia hobetzea ( % 29)
  - Biodibertsitatea ( % 36)
  - Ingurumenarekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa ( % 21)
  - Hondakinak ( % 7)
  - Hiri-iraunkortasuna ( % 7)

Jasotako eskaeren kopurua beste diru-laguntza lerro batzuekin alderatuta txikitat jo daitekeen arren (16 eskaera), bai proiektuetan zuzenean parte hartzen duten pertsonen kopuruak, bai zeharkako pertsona onuradunen kopuruak (hainbat udalerritakoak, beste elkarte eta erakunde batzuetakoak, etab.) laguntza horiek estaltzen dituzten gizarte- eta ingurumen-ondasunen berri ematen dute. Era berean, berretsi egiten dute gobernuz kanpoko erakundeek, elkarte ekologistek eta beste erakunde batzuek gizarte osoaren



garapen iraunkorrekiko sentsibilizazioan, motibazioan eta inplikazioan parte hartzeko duten prestasuna eta interesa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garatutako ingurumen-boluntariotzako proiektuen kopurua	18	14
Diruz lagundutako proiektuetan parte hartu dutenen kopurua	1.500	2.093





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskadin ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen Agindua**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105375e.shtml>

AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204272e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen xedea ekonomia zirkularra sustatzera bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta laguntza horien deialdia egitea, EAEn hondakinen kudeaketa hobetzeko behar diren inbertsioak bizkortuz, eta udal-hondakinen eta ontzien eta ontzi-hondakinen kudeaketaren arloan Europar Batasunak ezarritako helburu berriak betetzen direla bermatzea

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdia ebazteke dago. Estatuak autonomia-erkidegoei transferitutako aurrekontua handitu egin denez, Aginduaren aldaketa bat izapidetu da, hasierako aurrekontua handitzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u> (*)	<u>Emaitza</u>
Enpresetan teknologia eta prozesu berritzaileak sustatzeko diruz lagundutako proiektuak	100	
Diruz lagundutako enpresa kopurua	150	
Dirulaguntzaren amaierako inbertsioaren gaineko ehunekoa	7%	

(\*) Adierazle horiek Zuzendaritzak kudeatutako deialdi guztiei dagozkie, deialdi bakoitzari dagozkion doikuntzak egin beharko lirarteke.